**KIROLA: ANE LÓPEZ DE BERGARA IGERILARI ARRASATEARRA HUNGARIAN IZAN DA UDAN /10**


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko irailaren 28a • II. urtea • 35. zenbakia • DOAN BANA


**EZTABAIDA: ZER DERITZOZU DISKOAK EROSI BEHARREAN, KOPIATZEARI? /7**

Goienka2a
**ASTRONOMIA: Gizakia zerura begira**

**NON-ZER**
San Migelak ospatuko dira asteburuan Debagoieneko hainbat herritan /15



**MIREN AZKARATE**
*"Ezker Batua Eusko Jaurlaritzan sartzea onerako izango da"* /9

GIPUZKOAKO ERREKARIK ZIKINENA DA GAUR EGUN

# Deba errekaren egoera narrasa hobetu nahian

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ur Kalitatearen eta Kontrolaren bulegoak argitara emandako txostenean jasotzen denez, Deba erreka da Gipuzkoako ibairik zikinena. Txosten horrek baieztatu baino ez du egiten debagoiendarrok egunero ikus dezakeguna, hain justu, itxura narrasa eta ur zikina daroala gure ibaiak. Egoera hobetzeko ahaleginetan ari dira Ur Partzuergoa eta Diputazioa, eta dagoeneko hainbat lan egiten dihardute kolektoreak jartzeko. /2-3



Apurka-apurka urak garbitzeko kolektoreak jartzen dihardute. Egun hauetan Mondragoen ari dira. XABI URZELAI

ARRASATE

## Komun publikoak jarri dituzte Seberren

Astelehenean, Frantziako Landetatik ekarri zuten arrasatearrek hainbeste eskatu eta itxaron duten komun publikoa. Bere hamahiru tona eta guzti, hantxe ipini zuten, Seber Altube plazan, han ibiltzen da-eta herriko jende ugari, pertsona nagusiak eta umeak gehienbat. /5

BERGARA

## Kataibia eta inguruak urbanizatuko dituzte

Santa Marina eliza ostean dagoen Kataibia plaza eta haren inguruak urbanizatzeko proiektua onartu du Bergarako Udaleko Gobernu batzordeak. Lanak esleitzeko baldintzak lehiaketara atera dituzte. Proiektua Andoni Sistiaga arkitektoak egin du. /4




## Hizkuntzen Eguna

Eguaztena Europako Hizkuntzen Eguna izan zen eta euskararen egoera zein den gogorarazi dute astean barrena Debagoieneko hainbat taldek. Izan ere, talde horiek uste dute Europako Hizkuntzen Eguna ospatzekoa dela, baina euskararen egoera zein den ikusita, baita aldarrikatzekoa ere. /3


**LENIZ MOTOR**
JUAN M. ZUAZUBISKAR
BASO, LORATEGINTZA ETA NEKAZARITZARAKO TRESNAK



Gipuzkoa etorbidea, 9
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 78
VIKING STIHL


HERRIZ HERRI/4-5 • GUTUNAK/6 • IRITZIA/7 • KIROLA/10 • NON-ZER/15-17 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 28a

# Zikinena

## Deba ibaia da gaur egun Gipuzkoan daukagun errekarik kutsatuena

IKER BARANDIARAN

Deba ibaia Leintz Gatzagan jaiotzen da, inguruko zenbait errekak bat egitean. Arrasatetik behera, Oñati ibaia eransten zaio. Gerora, Maltzagan, Ego ibaiaren ura hartzen du Deba ibaiak. Mendarotik aurrera, Kilimon, Mahala eta Tartolaren pareko iturburu garrantzitsuak sortzen ditu, eta Deban itsasoarekin bat egiten du. Debaren arroaren luzezabalera 533,8 kilometro karratukoa da, eta ubide nagusiak 62,4 kilometro ditu. Zatirik handiena Gipuzkoakoa da, nahiz eta zati txiki bat Araban egon (Aramaio errekaren goialdean) eta beste bat Bizkaian (Ego azpierroaren goialdean).

Aspalditik zikin dago ibaia, batez ere Eskoriatzatik aurrera, eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta bailarako udaletxeak aspalditik daude horren inguruan kezkatuta. Hala ere, ibaiaren egoera ez da ia aldatu, eta Aldundiko txosten batek pasa den udan jakitera eman zuenez, Deba ibaia Gipuzkoako zikinena da. Izan ere, diotenez, gure herrietan, industriak eta herritarrek sortzen dituzten hondakinak isurtzen dira, ugari, gainera. Hauetako batzuk, osagai toxikoekin. Horren ondorioz, ibaiaren egoera oso txarra da.

Hala ere, desberdin irudikatzea zaila bada ere, Deba ibaia ez da beti horrela egon. Hain zuzen ere, zenbait arrasatearrek ondo baino hobeto gogoratzen duten bezalaxe, 60ko hamarkada inguru arte ohikoa zen Deba ibaian bertan igeri egitea edota arrantzan egitea. Azken hau galarazita zegoen arren, gutxi batzuk gauez ibiltzen ziren guardia zibilek harrapatu ez zitzaten. Bainua hartzeko leku aproposenak, berriz, Etxaluze baserriko errebuelta edota Osiñako presa azpia ei ziren. Lehenengoa San Andres auzoan kokatuta zegoen Intxausti eta Cerrajera arteko kurba ezagunean. Txoko horretan ura garbi-garbi zegoen eta gainera bizpahiru metroko sakonera zeukan putzuak, primerako lekua beraz. Horretaz gain, beste asko Osiñako presa azpian ere bainatzen ziren, diotenez hango ura zikintxoagoa bazen ere. Besterik ez zegoen garai horretan, ez behintzat Union Cerrajerak igerilekua jarri zuen arte, eta jakina, igerilekua ez zegoen jende guztiarendako zabalik. Are gehiago, emakumeak ezin ziren han bainatu. Igeri egiteaz gain, iraganean, arrasatear batzuek arrantzan ere egiten zuten ibaian eta baita arrainak harrapatu ere, aipagarrienen artean loinak, ezkailuak, karramarroak eta aingirak, batez ere.



ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / OBRA HIDRAULIKO ETA HIRIGINTZA DEPARTAMENTUA

### SALAKETAK 80ko HAMARKADAN

Ez dago esan beharrik gauzak asko aldatu direla eta 60ko hamarkadatik gaur egunerainokoa ikusita nagusiek kontatu izan diguтena fikzioa dirudiela. Deba ibaiaren egoera tamalgarria salatzea aspaldiko kontua bada ere, orain arte horren inguruan lan gehien egin dutenak Komite Antinuklearrak izan dira. 80ko hamarkada hasieran, talde horretako partaideek azterketa sakonak egin zituzten batez ere industria bakoitzetik egiten zituzten hondakin isurketak aztertuz. Argazki mordoa atera eta informazio nahikotxo bildu zuten. Horren bitartez, batez ere Arrasateko kaleetan barrena, triptikoak banatu eta erakusketa antolatu zuten.

### DIPUTAZIOA, BAIKOR

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ur Kalitatearen eta Kontrolaren bulegoko arduraduna den Felix Izkok argi eta garbi dio Deba ibaia Gipuzkoako ibai kutsatuena dela. Hala ere, baikor da, bere esanetan, poliki-poliki erreka horren egoera hobera doalako. "Industria kimikoak gero eta isurketa gutxiago egiten ditu eta hori oso pauso garrantzitsua da. Tartean, ibaiko puntu batzuetan berreskuratze lanak egin ditugu, eta araztegia zein kolektoreak egin ahala, ibaiaren egoera hobetuko delakoan gaude".

Izkok nabarmendu zuen duela 25 urte ibaia egoera txarragoan zegoela: industria gehiago zegoen, eta kontrol gutxiago. Etorkizunari aurpegi baikorragoz begiratu ahal izango diogu: Izkoren esanetan, "kolektore eta araztegien eraikuntza prozesuak lau urte hartuko ditu. Aldi berean, beste saneamendu ekintza batzuk egingo dira, ibaien kalitate biologikoa hobetzeko".

**Ezkailuak, karramarroak, loinak, eta aingirak zituen**

**Deba arroaren ubide nagusiak 62,4 kilometro ditu**

**Urak garbitzeko kolektore eta araztegiak egiten dihardute**



# Araztegiak

Dagoeneko hasi dira kolektoreen lanak Debagoieneko herri batzuetan. Kolektore horiek, herritarren eta industrien urak jaso eta ibaiaren pare-paretik ibilbide bera eginez, araztegietaraino eramango dituzte urak. Gerora, araztegi horietan, ur horiei tratamendu biologikoa emango diete. Dena den, esan beharra dago kolektore horiek ez dutela industrietako edozein isurkin jasoko, eta gutxiengo batzuk aginduko direla. Araztegiak eraikitzeak lau bat urte beharko ditu.



Kolektoreak egiten.

# Orain 50 urte

Bitxia da egun ezagutzen dugun Deba ibaiaren egoera ikusita, iraganean hantxe bainua hartzen zutela irudikatzea. Baina hala gogoratzen dute nagusiek, eta baita garai hartatik gordeta dauden irudi urriek ere. Josu Otadui errementariak utzi digu hauxe, Joxe Mari Lasagabasterrek ateratakoa. Argazki honetan esaterako, Arrasaten Zarugaldeko kaleko jaietan, errekan bertan egiten zuten igel edo ugarixoen harrapaketa ageri da. Irudia 1953. urteko abuztuaren 28koa da.



Deba ibaia Arrasateko Zarugalde kalearen inguruan. JOSE MARI LASAGABASTER, BENTXES

## *Bailaran, labur*

### EUSKARA

**Euskararen aldeko hainbat ekintza egin dira Europako Hizkuntzen Eguna dela eta**

Irailaren 26a, eguaztena, Europako Hizkuntzen Eguna izan zen. Hori horrela, euskararen egoera zein den gogorarazi zuten Debagoieneko hainbat taldek: euskara elkarteek, Euskal Herrian Euskarazek, AEK-k... Izan ere, talde horiek uste dute Europako Hizkuntzen Eguna ospatzekoa dela, baina euskararen egoera zein den ikusita, baita aldarrikatzekoa ere. Euskararen aldeko taldeek hainbat ekintza egin dituzte astean Debagoieneko herri nagusietan: kale agerraldiak, prentsaurrekoak, horma-irudiak... Taldeon iritziz, Frantziako eta Espainiako estatuetako agintariek esaten dute konstituzioek hizkuntza aniztasuna, berdintasuna eta errespetua bermatzen dituztela, eta hori, gainera, goraipatu egiten dute. Baina euskaldunok "ezin dugu gure hizkuntza babesten duen legedia goraipatu, ez dugu-eta". Frantziako konstituzioak "euskara existitzen denik ere ukatzen du", eta Espainiakoak "gaztelaniaren menpe bizitzera zigortzen gaitu, desagerpenerako bidea urratuz". Europako Hizkuntzen Eguna dela-eta antolatu diren ekintzekin amaitzeko, bihar, zapatua, manifestazioa izango da Bergaran, 12:30ean. Euskaldunon hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko, Bergarako eta Mondragoeko EHEko kideek dei egin dute manifestazio horretan parte hartzeko. /MONIKA BELASTEGI

### TENPORAK

**Hego haizea eta giro epela nagusituko ei dira hasi berri den udazkenean**

Joan den astean sartu ginen udazkenean, eta irailaren 19, 21 eta 22an izan genuen eguraldiaren arabera, zelako udazkena izango dugun aurrez ikusi dute tenporak aintzat hartzen dituztenek. Pello Zabala frantziskotar eta eguraldi iragarlea da tenporei begiratzen dienetako bat. Haren esanetan, iraileko aurreko asteko eguazten, egubakoitz eta zapatuan, hego haizea nagusitu zen. Hortaz, aurrera daiteke datozen hiru hilabeteotan giro epela izango dugula eta hegoa nagusituko dela. Hala ere, euria ere egingo du egun batzuetan. Urriko eta azaroko lehen hamabostaldian tenperatura epela eta eguraldi ona izango dira nagusi. Azaroaren bigarren hamabostaldian eta abenduan ere, hegoa nagusituko da, baina aldian-aldian fronte hotzak sartuko zaizkigu eta, horrek, euria ekarriko du. /E.A

### OSPAKIZUNA

**Arantzazu izeneko hainbat eta hainbat emakume batu ziren Santutegian**

Arantzazu izeneko hainbat eta hainbat emakume Arantzazuko Santutegian elkartu ziren joan den zapatuan. Euskal Herrian emakume askok dute Arantzazu izena, eta horietatik, asko eta asko debagoiendarrak dira. Horiek guztiek jaso zuten Arantzazuko Adiskideen Elkarteak bidalitako gutuna, Santutegian elkartzeko. Hirugarren aldia da ospakizuna egiten dena. Lehena orain dela 50 urte inguru egin zen. Bigarrena, orain dela sei urte eta, azkena, joan den zapatuan. Oraingoan, gainera, Arantzazuko frantziskotarren 500. urteurrena ospatu dute. Elkartu ziren aurreko aldian baino jende gutxiago batu zen joan den zapatuan. Batetik, eguraldiak ez zuelako lagundu eta, bestetik, antolaketa ez ei zelako hain ona izan, besteak beste, autobusak ez zituztelako antolatu. /G.E.

### ARTZAIN TXAKURRAK

**Orozkora joan zen Oñatiko Artzain Txakurren Nazioarteko txapela**

Joan den domekan, Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa jokatu zen. Oraingoan ez zen Debagoieneko ordezkaririk izan, Jesus Mari Plazaola udalarrak ez baitzuen sailkatzerik izan Elorrion jokatutako Euskadiko Txapelketan. Enrike Mendiguren orozkoarra nagusitu zen *Noiz arte* izeneko txakurrarekin, eta Pako Iriondo Euskadiko Mendi Federazioko presidente izandakoak eman zion saria. Bestalde, Jean Michel Bidart artzaina, Edu Ugalde Bizkaiko Artzain Txakurren Txapelketako antolatzaileetakoa zena eta Reyes Korkostegi Oñatiko alkate izandakoa omendu zituzten. Hirurak oraindik orain hil dira. /E.A.

**BERGARA** KATAIBIA PLAZA BERRIA

# Kataibia plaza eta inguruak urbanizatzeko proiektua onartuta

*Lehenengo epean plaza urbanizatuko dute 47 milioiko aurrekontuarekin*

MONIKA BELASTEGI

**Santa Marina eliza ostean dagoen plaza, Kataibia plaza, eta haren inguruak urbanizatzeko proiektua onartu du Udaleko Gobernu batzordeak. Lanak esleitzeko baldintzak ere lehiaketara atera dituzte.**


Plaza berria oinezkoendako izango da, soilik. Ezingo da autoa aparkatu. M.B.

Gobernu batzordeak onartu berri duen proiektua Andoni Sistiaga arkitektoak egin du. Proiektu horrek Kataibia plaza eta ingurunea urbanizatzea aurreikusten du. Hau da, Santa Marina ostean dagoen zabalgunean oinezkoendako plaza eraikitzea, Santa Marinako zubia zaharberritzea eta Santa Marinako parrokia eta Usondoko parkea elkartzea.

Lan horiek guztiak epeka egingo dira, eta, oraingoz, lehenengo faseko lanak esleitzeko baldintzak atera ditu lehiaketara Udalak. Lehenengo fase horretan, berrogeita zazpi milioiko aurrekontuarekin, Kataibia plaza urbanizatuko dute, eta baita Santa Marina parrokian hainbat berriztatze egin ere. Izan ere, proiektu hori gauzatzeko, hitzarmena sinatu behar izan zuen Udalak Santa Marina parrokiarekin, azken hori Kataibia plazaren jabe izanik, lurraren erabilera Udalari uzteko. Trukean, Udalak, hainbat konponketa egin beharko ditu elizan.

**KATAIBIA PLAZA**

Plazari dagokionez, zorua konponduko dute. Zuhaitz berriak sartuko dituzte. Farola eta bankuak jarriko dituzte eta baita iturri bat ere. Horrez gain, ibaiaren kontran, 24 metro luzeko markesina jarriko dute, zapatu goizetako azoka hara eramango baitute. Bestalde, plaza gaur egun, batez ere, autoak aparkatzeko erabiltzen duten arren, plaza berria oinezkoendako izango da soilik.

**ELGETA**

## Urriaren 15ean, astelehena, zabal lezakete kiroldegia

IBAN ARANTZABAL

Zerbitzu guztiak ematen ez diharduen kiroldegia urriaren 15etik aurrera jarri daiteke abian. Sei lagunek egingo lukete lan, horietatik lauk elkarte bat sortuta eta beste bi laguntzaile moduan. Gazteek hartu gura dute kiroldegia, 23-31 urte bitartekoak, hain zuzen; hala ere, gazteak izanagatik esperientziadunak dira horietako pare bat. Donostiako jatetxe batean jardunak dira.

Donostiatik Elgetara etorriko dira bizi izatera eta, momentuz, etxea bilatzen ari dira.

Udalak oraindik ez du gaia guztiz lotua, baina horretan dihardu. Baldintza onak iruditu zaizkie Udalak jarritakoak, izan ere, Udalak erosi du kiroldegiko material guztia, errenta pixka bat igo bada ere.

**ESKOLA KIROLA**

Eskola kirolean 18 lagunek eman dute izena, bederatzi alebinetan eta bederatzi benjaminetan. Oso justu ibiliko dira zenbait kirol egiteko, eta kirol zerbitzutik dei egin dute jendea anima dadin.

**ANTZUOLA**

## Ikastaro eskaintza zabala urritik aurrera Antzuolan

AINTZANE IRIZAR

Grafologia, pintura, masaje edota dantza ikastaroak egiteko aukera izango da urritik aurrera. Grafologia ikastaroa urriaren 20an hasiko da; zapatu goizetan izango dira eskolak, 10:30etik 12:30era.

Guztira hamar ordu izango ditu ikastaroak, eta udaletxean eman behar da izena urriaren 8a baino lehen. Helduentzako pintura ikastaroa, berriz, urriaren 10ean hasiko da, eta ekainera arte iraungo du, astean bi orduz eguaztenetan, 18:30etik 20:30era. Pintura ikastarorako ere urriaren 8a izango da izena emateko azken eguna. Masajeak ematen eta erlaxatzen ikasteko aukera ere egongo da, urriaren 18an hasita. Kasu honetan, urriaren 15era arte egongo da zabalik izena emateko epea, eta eguenetan izango da ikastaroa 19:00etatik 21:00etara. Azkenik, aretoko dantzen ikastaroa ere antolatu du Udalak: baltsea, fox, pasodoblea, cha cha cha, tangoa… Hau ere zapatuetan izango da, 16:00etatik 19:00etara, eta bost saio izango dira guztira. Izena emateko epea, kasu honetan, urriaren 8ra arte dago zabalik.

**OÑATI** ZUBILLAGAN KONPONKETAK

# Zubillagan plazatxoa egingo dute, eta baita jolas parkea ere

*Lan horiek proiektu zabalago baten zati bat baino ez dira*

AINTZANE IRIZAR

Atzo, eguena, urbanizazio lanak lehiaketara ateratzekoak ziren osoko bilkuran. Hilabeteko epean aurkezten diren enpresetako bati adjudikatuko dizkiote Zubillaga auzoan egin beharreko lanak.

Eskola zaharraren eta elizaren arteko gunean plazatxo bat egingo dute. Gaur egun, nahiko txarto dago gune hura, zati batzuetan baita sasiak hartuta ere. Lurra berrituko dute, baldosak jarrita, eserlekuak jarriko dituzte, baita gune hura argiztatu ere. Guztira, 15 milioi baino gehiago kostako da lan horiek guztiak egitea. Aurtengo aurrekontuetan, 10 milioiko diru partida aurrez ikusi zuten; gainerakoa, berriz, datorren urteko aurrekontuetan onartuko dute. Bestalde, eta herriko hainbat auzotan egiten ari diren moduan, umeendako jolas parkea ere egingo dute eskola zaharraren osteko plazatxoan. Horrek beste milioi bat pezeta baino gehiagoko kostua izango du.

Esan beharra dago, hala ere, oraingo lan hauek proiektu zabalago baten zati direla. Duela urte batzuk, frontoia berritu zuten; etorkizunean, berriz, pasealekua egokitzeko asmoa daukate.


Gaur egun, nahiko txarto dago eskola zaharraren osteko gunea. AINTZANE IRIZAR

COMERCIAL BRUNET
MOTOZERRA ESKAINTZA BEREZIA!
Motozerra zaharra ekarrita, 37.398 pta.-raino emango dizkizugu


Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

DITUGUN PERTSONAL PREMIAK ASETZEKO ETA LAN POLTSA OSATZEKO HONAKOAK BEHAR DITUGU
1) ENPRESA ZIENTZIATAN (FINANTZA ETA MARKETING ARLOETAN) ETA HUMANITATEAK ENPRESAN LIZENTZIATUAK
2) ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUAK
3) EUSKARA PLANAK GARATZEKO HIZKUNTZA TEKNIKARIAK
KURRIKULUMA ETA ARGAZKIA URRIAK 3a BAINO LEHEN 1) KASUAN ETA URRIAK 5a BAINO LEHEN 2) ETA 3) KASUETARAKO:
EMUN KOOP. E.
227 Postakutxa
Uriburu 9, behea
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
e-posta: emun@emun.com
Tel.: 943 71 18 47
Emun koop. e.
Lana euskalduntzeko kooperatiba

ARAMAIO — AITOR ARANAREN OMENEZKO IBILALDIA

# Kiroldegitik irten eta zortzi orduko mendira

*Irteera lau pertsonako taldetan egingo da*

UBANE MADERA

Domekan Aitor Aranaren omenezko V. Mendi Ibilaldia izango da, Orixol Mendi Elkarteak antolatuta. Goizeko 08:00etan kiroldegitik aterata, 6-8 bat orduko mendi buelta egingo dute: Ibarra-Mariarka-Murugain-Asensiomendi-Kurtzeta-Marixeka-Mirugai-Olaeta-Orixol-Lezia-Ibarra. Ibilbidea taldeka egingo da, gehienez lau pertsonek osatuko dute talde bakoitza eta taldeek ibilaldi txartela aurkeztu beharko dute kontrol bakoitzean. Ibilaldia osorik egiten duten parte hartzaileek diploma bana jasoko dute. Era berean, janaria etxetik eramatea komeni da, izan ere, antolatzaileek Marixekako kontrolean banatuko dituzte janari-edanak, baina, beste guztia norberaren esku egongo da. Hori bai, bukaeran kiroldegian dutxatzeko aukera izango da.



1999ko ibilaldiko irudia. ORIXOL M.E.

ARRASATE — SEBER ALTUBEKO KOMUN BERRIAK

# Frantziatik ekarritako radardun komuna ipini dute Seberren

*Barruan inor ez dagoela igartzean komunak egiten du garbiketa osoa*

UBANE MADERA

Astelehenean, Frantziako Landetatik ekarri zuten arrasatearrek hainbeste eskatu eta itxaron duten komun publikoa. Bere hamahiru tona eta guzti, hantxe ipini zuten, Seber Altube plazan, han ibiltzen da-eta herriko jende ugari, pertsona nagusiak eta umeak gehienbat. Eta horrexegatik uste du Udalak leku egokia izango dela.

Komun berezia da, jendea barruan dagoen ala ez jakiteko gai den radarra dauka eta. Ordu laurden inguru izango du erabiltzaile bakoitzak zereginak egiteko, eta denbora pasatutakoan, komuna bera arduratuko da abisatzeaz, trenetan eta antzekoetan egiten den moduan, ahots batez edo soinuren batez.



Komun publikoak jartzen. UBANE MADERA

## GARBIKETA

Barruan inor ez dagoela igartzen duenean, komunak egiten du garbiketa osoa; aldi bakoitzean komuna bera eta zorua garbitzen ditu xaboi eta desinfektagarriarekin. Ispilua eta konketa ere baditu, apur bat txukundu eta eskuak garbitzeko. Eta, jakina, Europatik datozen aginduei jarraituz, gutxituendako egokitua ere badago.

Horrez gain, atea irekitzeko sistema berezia du: elektroimana erabiltzen du. Horrek esan nahi du, edozein unetan irten ahal izango dela barruan dagoen pertsona, baita argindarra joaten bada ere. Hortaz, komun horretan ez dago barruan geratzeko arriskurik.

Gris eta berde kolorekoa da, herdolgaitza den altzairuz eta hormigoiz egindakoa.

Zortzi milioi eta erdi pezeta inbertitu du Udalak komuna erosteko, eta gaur, egubakoitza, zabaltzeko asmoa dute. Era berean, aurrera begira, herriko beste zenbait tokitan ipintzeko aukera aztertuko dute, beti ere leku egokia aurkituz gero.

ARETXABALETA — SAN MIGEL JAIA

# Euskal erromerietako giroa izango da nagusi San Migel jaietan

AMAGOIA LASAGABASTER

Jai giroan dator astebukaera aretxabaltarrontzat. Egubakoitzean hasi eta domeka gauera bitartean egongo da zer ikusi eta non parte hartu. San Migeletako ekitaldirik garrantzitsuena zapatu goizeko artisau eta produktu biologikoen azoka izango da. Taloak, sagardoa, bertsolariak, asto lasterketa... Edonola ere, giroa berotuko dutenak herritarrak izango dira duda barik.

Zapatu arratsaldean, ohiturari jarraituz Beinke-Loramendi dantza egingo dute herriko plazan. Loramendi dantza taldeak eta Leizarra musika eskolak antolatutako dantza honetan herritar ugarik hartzen du parte. Tartean, gainera, urtero atxabaltar bat omentzen dute. Aurten Jose San Miguelek, pilotari gazteen entrenatzaileak, jasoko du herritarren esker ona. Josek azken hamabi urteotan makina bat pilotari gazte trebatu ditu frontoian. Eta oraindik ere, lan horretan dihardu. Horregatik guztiagatik omenaldi beroa jasoko du zapatuan herriko plaza erdi-erdian.

## GARAI BATEKO SAN MIGELAK

Gaur egun ezagutzen ditugun San Migel jaiek 11 urte besterik ez dauzkate. 1990. urtean antzinako ezkontza antzeztuz egin zuten festa. Bigarren urtean, bataioa egin zuten, eta hirugarrenean, berriz, euskal festa. Azken horiek izan zuten arrakasta ikusirik, gainera, datozen 30 urteotan euskal jai berdintsuak egiteko konpromisoa hartu zuten herrian.

Horrela, urtetik urtera, indar handia hartu dute San Migelek. Zapatuan batez ere, inguruko herrietako jende ugari etortzen da azoka biologikoa ikustera.

**Zertzelada**

**Jose San Miguelek, pilotari gazteen entrenatzaileak, jasoko du aurten omenaldia. Josek azken hamabi urteotan makina bat pilotari gazte trebatu ditu herrian**

ESKORIATZA — HILETA ERRITUEN TXOKOA

# Hileta errituen gaineko txokoa antolatu dute Museo Eskolan

MIRARI ALTUBE

Eskoriatzako Museo Eskola, "Hilarriak biribilketan" Europako proiektuan sartu da. Donostiako San Telmo Museoa, Baionako Museoa, eta Espainia eta Portugaleko beste hainbat museo ere tartean daude. Egitasmoaren helburua, antzinako hilarriak ikusi, ikertu eta euren inguruko azterketa zabaltzea da. Ikastetxeetan egingo diren tailerrez gain, herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera. Interesa daukatenek, Museo Eskolan eman dezakete izena, eta taldeak osatuko dira urri eta azaro bitartean lan egiteko.

*Lan eskaintza*

**HARRERAGILE ETA TELEFONISTA**

**behar da**

**Bete beharreko baldintzak:**

- Administrazio arloko LHII
- Ofimatika tresnen ezagutza
- EGA
- Ingeles maila altua

Interesatuok, bidali curriculum-a eta oraingo argazki bat helbide honetara: 29 posta kutxa, 20540 Eskoriatza. (Erref: CV)

**Eskaerak jasotzeko azken eguna: URRIAK 2.**

## Zabalik



MIKEL IRIZAR

# Eskualdeko agintea?

**Debagoiena hiri bakar bihurtzen ari da. Gero eta gehiago dira herrien mugetan kabitzen ez diren ekimenak. Gero eta sarriago bateratu behar du herri bakoitzak bere lana ingurukoekin. Gero eta ugariagoak dira eskualdea eremu hartzen duten egitasmoak.**

**Eta eskualdeko aginterik ez dago. Hor da Debagoieneko Mankomunitatea, baina berez udalen arteko zerbitzu agentzia besterik ez da. Zerbitzu jakin batzuk elkarrekin kudeatzeko tresna da, udal bakoitzak nahi duen neurrian erabiltzen duena. Mankomunitateak ez du udalen gaineko aginterik, ez ditu udalak ordezkatzen.**

**Egoera honek arazo asko sortzen du. Bat, eskualdeko plangintza faltan herrien arteko bikoiztasunak gertatzen dira. Guztiek behar dute industrialdea, frontoia, igerilekua, antzokia eta minizinemak. Honi buruz, antolamendu bateratuak arrazionaltasuna ekarriko luke. Beste arazo bat da eskualdeko eragileen aurrean solaskidetzarik eza. Eskerrak eragile horiek, oro har, oso eskualdezaleak diren! Bestela, aberiaren bat egina ziguten honezkero!**

**Mankomunitateak agintea behar luke, plan eta estrategia bateratuak zuzentzeko ahalmena. Horretarako ezinbestekoa du legitimitate politikoa, herritarren ordezkaritza. Nola lortu, ordea?**

**Bada bide bat lehen urratserako baliagarri izan daitekeena. Gipuzkoako Biltzar Nagusiak antzinako barruti judizialen arabera hautatzen dira, eta gaur egun, barrutiok ez dira ezer. Zergatik ez Biltzar Nagusiak eskualdeka hautatu? Horrela eginez gero, eskualdeko hautetsiek legitimatuko lukete Mankomunitate politikoa.**

**Bi urte baino lehen izango dira hauteskundeak. Zergatik ez hautatu orduan eskualdeko agintea?**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

### Osintxuar batek, mila esker

Bada Euskal Herrian leku txiki bat Bergarakoa dena eta Osintxu izenez ezagutzen dena. Leku hau euskalduna da, beraz, Euskadikoa dena. Leku txiki hau aspaldidik ahaztua izan da, hila zegoen, ezer ez zen gertatzen bertan, jaietan zerbait eta gero deus, gero ezer ere ez, baina nire herria euskalduna izaten jarraitu zuen, nahiz ezer ez gertatu urtearen barruan, nahiz maiz jendeak ahaztu, bere izateari eta zenari jarraitu ziona.

Naturan badaude hazi batzuek hilak ematen dutenak eta oso geroztik bizirik daudela gertatzen direnak. Horixe gertatu zen nire herri txikian, hori gertatu zen Osintxun, elkarte baten eskutik. Elkarte horrek izena du Txurrumillo.

Egia da beti batzuek egiten dutela lan, baina eduki kontuan, adiskideok, beti, adibidez, hegazkina erabiltzen dutenak izaten direla pilotuak eta ez zurginak. Horregatik, beti batzuek hartuko dute besteentzako diren gauzen zama.

Azken finean, gauzak egitea ahaltasunaren semea da eta gauzak ikustearen ondorioa.

Hemen bi indar daude, nagitasuna anekdota bat besterik ez izanaz. Batetik, buruarekin gauzak eta beharrak ikustea. Bestetik, eskuzabala izatea. Horrelakoak zarete zuek. Osintxuar bezala, esker mila.

GILLERMO AZKARATE
Bergara

### GOITB Oñatin noizko?

Orain dala denbora pillotxo bat sortu zala GOITB telebisiño kateia, eta ondiokan Oñatin ezin da berau ikusi. Oñatiko eta inguruko herrixetako notiziak emuten dauen kateia izan eta oñatiarrak ikusi barik gerakctia penagarrixa pentsaitten xaku. Hau pasaittia ez dakigu noren kulpia dan, baiña argi dauena da oñatiar danok garela galtzaille urteten dunak. Oñatiko agintarixak eta GOITBko zuzendarixak ados ipiñi eta telebisiño kate hau ikusi ahal izatia da gure nahia eta, uste dugu, oñatiar danona.

PABLO AREJOLALEIBA
Oñati

### Aski da! Presoak herrira!

Giza eskubideez horrenbeste hitz egiten duzuen horiei:

Azken egunotan, hainbat euskal preso, beste askotan bezala, sakabanaketaren biktima bihurtu dira. Beraien artean, Sergio Fernandez Atauri, "Regu", preso gasteiztarra dago. Gazte hau kale borroka ekintzengatik epaitua izan zen eta 4 urteko kondena betetzera zigortua. Kartzelako patioan futbito partida bat jokatzen zebilela, preso sozial batekin istripu bat izan eta HIESAz kutsatu zen. Zauritua izan zen momentu berean, preso sozialak lagunduta, kartzeleroengana zuzendu eta bere kezka azaldu zien. Hauek ez zioten kasurik egin eta beren arduragabekeria agerian utziz, bere horretan utzi zuten gaia. Baina denborak aurrera egin ahala, gaixotasuna indarra hartzen joan zen, horrela, lau urterako kondenatu beharrean, bizi guztirako kondenatuz. Hori gutxi balitz, orain bere jaioterritik urrundu dute Regu, horrek dakarren guztiarekin.

Ondorioz, konfiantzako sendagilearekin zuen harremana etenarazi dute eta 92.artikulua hautsi, artikulu horren arabera, gaixotasun sendaezinak dituzten presoek kalean egon behar bailukete. Egoera horretan, Reguren senideek artikulu hau betearaz dadin orain arte egindako tramiteak ezerezean gelditu dira.

Argi dago sakabanaketak preso zein senideen sufrimendua areagotzen duela eta azken hauek astero-astero errepideetan beren bizia arriskuan jartzen dutela. Oraingo honetan, arrisku honen biktima izan dira Iñaki eta Asier gazteak. Beraientzat, bada, besarkada beroena eta honen erantzuleentzat kritika gogorrenak.

Hau da giza eskubideen defendatzaile sutsuek herriari ezkutarazten dioten aurpegia. Aski da! Presoak herrira!

SEGI
Arrasate

### Iñaki Sáezi

Kaixo, Iñaki! Zu izan zinen nire lehen maisua, zerotik hasi nintzen euskaraz ikasten, niretzat dena berria zen eta zaila. Baina suerte ona eduki nuen zurekin egoteagatik. Zuk egunero euskaraz ikasteko adorea ematen zenidan, eta zurekin ikasi nuen konturatu gabe. Urte haiek niretzat oso garrantzitsuak izan ziren, euskaraz ikasteko.

Gutun honekin eskerrak eman nahi dizkizut.

Beti egongo zara nire oroimenean.

INES BORREGO CÁCERES
Arrasate

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Kopia piraten erruz, sekulako dirutza galtzen ei dute disko argitaletxeek eta musika egileek. Orain dela gutxira arte, zinta magnetikoetan kopiatzen zen musika. Urte batzuetatik hona, ostera, euskarri digitalei esker, hau da, disko trinkoei eta grabatzeko informatika aparailuei esker, oso ohiko bihurtu da CDak grabatzea. Bestalde, kopia piratei esker, musikak askoz ere zabalkunde handiagoa lortzen du. Hortaz, kaltea handia izanda ere, horrenbestekoa ez dela uste du musika egile batek baino gehiagok.

# Zer deritzozu diskoak erosi beharrean, kopiatzeari?

## Pirata koskor ugari dago mundua



JON ANDER UBEDA
Musikari eta kazetaria

Ondoko zutabean egon nahiko nuke baina, tira, bertsolarien papera hartuko dut halabeharrez. Diskoen *pirateria*ren alde onak bilatzen hasita aurki daitezke zenbait.

Nik uste dut Metallicaren diskoen *pirateria* aktiboa egin beharko genukeela. Multinazionalei egurra eman behar zaie alde horretatik, horiek estutzean soilik lortuko baita prezioen politika jaistea.

Oraingoz ez da horrelakorik gertatuko, *pirateria*ri esker disko etxe eta banatzaile enpresa txiki asko itotzen ari baitira pixkanaka.

Eta kontua da euskaldunok Gor, Gaztelupe eta Metak konpainien diskoak pirateatzen ditugula. Konpainia txikientzat salmentak %15 jaistea etorkizunera begira apusturik ez egitea da, eta horrek kezkatzen nau.

Komunitate txikia gara, hiztun gutxi eta pirata koskor ugari. Kontraesanak larrutik ordaintzen ditugu euskaldunok.

Toloserriko Gazte Asanblada batek euskal musikaren max-mix pirata bat ipini zuen salgai sosak ateratzeko. Behin taberna batera sartu eta disko horretan zegoen Bide Ertzean taldeko abestia ipini zuten. Zerbitzariak gainera disko pirata erakutsi eta sinatzeko eskatu zidan. Haimaika ikusteko jaioak garela diote. Serio jartzen hasia naiz, eta erdi txantxetan bada ere, gai honi lotuta beste kontu bitxi bat aipatuko dizuet. Lehengoan, Antonio Vegaren disko berriena erosteko asmoz dendara joan nintzen eta hara non ikusi nuen hogei eurotan saltzen ari zirela bederatzi abesti zituen diskoa. Argi dago Antonio Vegak disko etxe kaskarra duela atzean, kanta bikainak ditu ordea. Disko etxeari esker inor gutxi animatuko da diskoa prezio horretan erostera, eta nik nire lagunei nola esango diet bada disko hori erostea merezi duela? Badakit zer egingo dudan. Nik erosi eta kopiak egingo ditut lagunei erakusteko, Nacha Pop taldeko sortzaileetakoak, urratuta egon arren, abesti bikainak egiten jarraitzen duela. Antonio Vegak pirateatua izatea merezi du. Disketxeak ez badio laguntzen, nik egingo dut. Kantuak merkatuaren legeen gainetik daudelako. Kasu honetan behintzat bai.

**“Metallicaren diskoen *pirateria* aktiboa egin beharko genuke. Ea prezioak jaistea lortzen dugun”**

## Kezkatzeko moduko fenomenoa



IMANOL UBEDA
Musikari eta kazetaria

Internetek hankaz gora jarri du musikaren industria. "Nabarra" aldizkarian irakurri dudan bezalaxe, bitarteko berria izateaz gain euskarri ere bilakatu baita Internet. Sarean dauden kantuak lokalizatu, etxeko ordenagailura jaitsi eta disko gogorrean gordetzeko aukera ahalbidetzen duelako. Honakoan ere, aurrerapen teknologikoek industriari hartu diote aurre. Honen ondorioz, MP3 sistema eta Napster moduko enpresen bitartez Internetek agente guztiak dantzan jarri ditu: disko etxeak, musikariak, dendariak... Ekonomia berri baten atarian gaudenez, bide eta harreman tradizionalak kolokan daudela esan daiteke.

Hala ere, teknologia berri hauek onuragarriak izango dira Euskal Herriko musika industriarentzat. Hizkuntza gutxituetan aritzen garenok orain artean arazo handiak izan ditugulako gure lanak atzerrira esportatu eta ezagutarazi ahal izateko. Orain, sare elektronikoaren bitartez, multinazionalek monopolizaturiko banaketa sarea gainditzea errazagoa izan daiteke. Dena den, bada kezkagarria iruditzen zaidan beste fenomeno bat, CD grabagailuek eragin duten *pirateria*, hain zuzen.

Internet bitartez musika kontsumitzen duena gutxiengoa da oraindik. CDak bikozteko tresneria, ordea, zabalduago dago, eta dagoeneko izugarrizko eragina izan du diskoen salmentan. Gero eta gutxiago dira disko dendetara jotzen dutenak, eta negozioan dabiltzanek badakite galera, neurri handi batean, CD grabagailuek eragin dutela. “Soilik kanpokoak kopiatzen ditut”, askotan entzun dugun arrazonamendua, jada iraganeko gauza da. Arazoa, gainera, are larriagoa da gurea bezalako merkatuetan. Lehen ere, produkzio gehienek inbertsioari aurre egiteko benetako zailtasunak zituzten. Horri *pirateria* fenomenoa gehitzen badiozu, epe laburrera etorkizuna ilun ager daiteke.

Euskal Herrian oraindik musika alternatiboa da nagusi, estetika eta estilo komertzialetik at dagoen eskaintza. Diskoen salmentak gainbehera jarraitzen badu, disko etxeek apusturako gogoa galdu, eta diskogintzak behera egin dezake. Kanturako gogoa ez da desagertuko, baina industria kinka larrian da. Arrain handiak arrain txikia irentsi dezake. Baina hori nori axola zaio? Azken batean, globalizazioak ulertzen ez duen hizkuntza batean mintzo gara.

**“Gero eta gutxiago dira disko dendetara doazenak eta galera, neurri batean, CD grabagailuek eragin dute”**

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** — Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

*Zer irizten diozu erretiratzeko adin mugarik ez jartzeari?*

# Gora eta Behera

### EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

Surflari euskaldunek Euskal Herria ordezkatu nahi, eta Europako lehiaketatik kanpo geratu dira. Berriro ere, kirolariek euren kontzientzia kirol helburuen gainetik ipini dute. Jarrera eredugarria da.

### POLITIKOEN GIDARITZA GAITASUNA

Kirol arlotik horrelako berriak etorri arren, ezin dugu ahaztu arazoa politikoa dela. Oraingoan ere Espainiako konstituzioarekin egin dugu topo, eta berriki tiralariek zein surflariek sortu olatuak ez dira nahikoak hormatzar hori gainditzeko. Herria gidatzeko aukeratu genituen politikoek Euskal Herrian diren korronte guztiak leku berera gidatzen asmatu behar dute, konstituzioaren horma gainditzeko gai izango den olatu handi bat sortu eta Europako itsasoan sartzeko.



IÑAKI IDIGORAS
Oñatiko Laixaneko presidentea

# Koplak

## Gure notiziak!

Egunkaria zabaldu eta
jendeak hartzen du pena,
negar malko ta zoritxarrekin
betetzen baitute dena.

Letra handiaz ikus daiteke
terrorismoa ugari,
gorroto asko, hitz itsusiak
eta mendekua sari.

Hilketa askok azkenaldian
lege gizonak nahasi,
hainbeste daude ez dakitela
ikerketak nondik hasi.

Dirua askorentzako denez
bizi onaren islada,
gero ta lapurketa gehiago
ikusi daitezke hara!

Famatuak eta aberatsak
sobra dituzte luxuak,
baina gehiago agertzen dira
beraien eskandaluak.

Kontu hauekin ondorio bat
erraz ateratzen dut nik,
munduan gero ta zailago da
aurkitzen pertsona onik.

JOKIN LABAIEN

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar
PUBLIZITATEA: Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
SAILETAKO ARDURADUNAK: Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Iker Barandiaran (Asteko gaia), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Julen Aranguren
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate, Gari Bragado
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 28a

# *Miren Azkarate*

KULTURA SAILBURUA ETA EUSKALTZAINA

## “Gizarteak behar duen pluraltasunarendako oso aberasgarria da Ezker Batua Jaurlaritzan sartzea, beraz, onerako izango da”



Euskaltzaina da 1992az geroztik, emakume euskaltzain bakarra, gainera. Euskal Herriko Unibertsitatean errektoreorde izan zen lau urtez, Pello Salaburu errektore izan zenean; ekainean, lehendakariak deitu zion Kultura sailburu izateko, eta bi bider pentsatzeko asti barik, baietz esan zuen. Donostiarra da, baina aita eta ama bergararrak ditu.

ENEKO AZKARATE

**Telefonoz elkarrizketa egiteko hitzordua egin genuenean, Bergarako euskaran jardun genuen. Donostiarra izan arren, ama-euskarari eusten diozu?**

Bai. Gainera, etxean, aita, ama, osaba eta izeba bizi ziren. Amak eta osabak nahiko ondo ikasi zuten Donostiako euskara, baina aitak eta izebak hirugarren berbarako Bergarakoa egiten zuten. Gurean Bergarakoa egin izan da beti. Alabek ere berba batzuk ikasi dituzte, eta lantzean behin Bergarakoan jarduten dugu.

**Eta, horrez gain, bestelako harremanik izan duzu Bergararekin?**

Bai, batez ere, UNEDeko Euskal Kultura Departamentuko Juan Martin Elexpururekin eta Jerardo Elortzarekin, baita Bergarako Udaleko Euskara zinegotziarekin eta teknikariarekin ere, Bergarako berbak eta langintza zaharrak berreskuratzeko lana dela-eta. Aholkulari eta begirale lanak egin ditut. Benetan lan ederra egin dute orain arte kaleratu diren liburuetan. Interesgarria iruditzen zait arrazoi askogatik: batetik, berbak, hau da, lexikoa jasotzen delako, eta, horrekin batera, lanerako egin dituzten elkarrizketen zati batzuk argitaratu dituztelako; eta, berbez gain, guretako garrantzitsua den informazio asko dagoelako morfologia, joskera eta abarren gainean. Azkenik, galduaz doazen edo galdu diren bizimodu eta lanbideak jasota geratu direlako herri honen ondare moduan.

**UNED aipatu duzu eta badakizu urteak direla Euskal Kultura Departamentua kendu zutela. Bergarari kalte egin zion horrek. Zer deritzozu?**

Gogoan daukat artean Euskaltzaindiarenak ziren B eta D tituluak eskuratzeko zapatuetan ematen ziren eskolak. Orduz geroztik ere, lan handia egin zen beste hainbat arlotan. Lastima izan zen EKD ixtea, urte mordoan sekulako lana egin zelako, baina ez naiz hasiko horren zergatiak baloratzen. Hala eta guztiz ere, zorionez, EKDn ibilitako jendeak lan egiteko modu bat sortu du eta horrek irauten duela uste dut, ez Bergaran bakarrik, baita Eibarren, Oñatin edo Mondragoen ere. Euskararen eta euskalkiaren aldeko taldeak sortu dira eta galera gozatzeko balio izan du horrek.

**Beharrezkoak iruditzen zaizkizu, hortaz, euskalkia bultzatzeko Badihardugu moduko taldeak?**

Bai. Batetik, oraindik ere euskararen aldeko militanteak behar ditugulako. Gazte jendea dinamika horretan sartzea oso mesedegarria da euskararendako. Horrez gain, urtetan euskara batuaren aldeko lana egin baldin bada, ezinbestekoa zelako, orain, akaso, euskalkiaren alde egin behar da lan. Gaur egun, batu akademiko edo formala jasotzen dute eskoletan eta, horren ondoan, garrantzitsua da lan egitea bertakoa indartzeko eta erabilera esparruak irabazteko. Hori, batez ere, bertako jendeak egin behar duen lana da, nahiz eta Euskaltzaindiak badaukan batzorde bat euskalkien erabilera zelan bultza daitekeen aztertzeko. Euskara estandarraz gain, norberaren herrikoa ere erabili behar da, biak dira beharrezkoak. Arazoa izan dezakegu bakoitzaren esparrua zein den erabakitzerako orduan. Horixe da datozen urteetan argitu eta adostu beharreko kontua. Bestela, argi dago tokian tokiko euskararen ahozko erabilera bultzatu behar dela eta, era berean, ahalegina egin behar dela euskara aita-amengandik edo aitajaun-amandreengandik umeengana heltzeko eta eusteko.

**Hortaz, horixe da arazoa, esparruak definitzea, alegia.**

Bai, hala da. *Eta Kitto!* edo *Berrigara* astekariek zelan idatzi behar dute? Edo bertakoa esaten dugunean, bizkaiera literarioa izan behar da eredu bakarra ala *Eta Kitto!* Eibarko astekariaren bidea jarraitu behar da? Horixe da argitu eta arautu beharrekoa. Hainbat eredu egon daitezke eta ondo pentsatu beharko da zein aukeratu.

**Eta zer erabili beharko genuke, esaterako, Debagoieneko komunikabideetan, estandarra ala tokian tokikoa?**

Ahozkoa den edo idatzizkoa den bereiztu beharko litzateke. Bestalde, telebistan eta irratian saio guztiak ere ez dira modu berekoak. Herrikoren bati elkarrizketa egiten badiogu errazagoa da herriko bertako euskara erabiltzea. Hala eta guztiz ere, ahalegina egin beharko litzateke kontrakzioak modu osoagoan erabiltzeko. Bestalde, albistegietan estandarraren alde egingo nuke, baina hiztegi kontuan bizkaierako berben alde egingo nuke, ahal denean. Hortaz, telebistan eta irratian, batuaren eta euskalkiaren artean, saio motaren arabera, bietan jarduteа izango litzateke onena. Idatzizkoetan, ostera, zenbait proposamen ikusita, badaukagu mutur batetik bestera joateko arriskua. Ez da berdin egiten Oñatin, Mondragoen edo Bergaran. Orduan, aditz morfologian, esaterako, zer egin behar dugu? Dozena erdi paradigma ezberdin, herri guztietan ahoz erabiltzen diren aldaketa guztiak hartuta? Belaunaldi berriak ohituta daude euskaraz irakurtzen, eta ez

BERGARAKO EUSKARA

**“Gurean Bergarako euskara egin izan da beti. Alabek ere berba batzuk ikasi dituzte, eta lantzean behin Bergarakoan jarduten dugu”**

UNED-EKO EUSKAL KULTURA DEPARTAMENDUA

**“Lastima izan zen Bergarako UNEDeko EKD ixtea, urte mordoan sekulako lana egin zelako, baina ez naiz hasiko horren zergatiak baloratzen”**

BATUA ETA EUSKALKIA

**“Euskara estandarraz gain, norberaren herrikoa ere erabili behar da, biak dira beharrezkoak. Arazoa izan dezakegu bakoitzaren esparrua zein den erabakitzeko orduan”**

HERRI HEDABIDEAK

**“Tokian tokiko komunikabideek lan bikaina egiten dute. Globalizazioaren kontzeptu horretan zenbat eta harantzago joan, orduan eta gehiago eskertzen du jendeak gertutasuna”**



ENEKO AZKARATE

zaie arrotz egiten batuan irakurtzea. Hortaz, zer edo zerengatik apustu egitekotan, ez nuke egingo oso tokian tokiko hizkeren alde.

**Gainera, zaharrei batua bezain zaila egingo zaie bertakoa irakurtzea, ez daudelako euskaraz irakurtzen ohituta...**

Ez hori bakarrik. Bergaran, behintzat, ni ume nintzenetik, baita lehenagotik ere, abadeek sermoiak gipuzkeraz esan izan dute beti, bergararrak izanda ere. Zaharrak ohituta daude Bergarako euskara gordingordinik entzun beharrean beste modu batekoa entzuten.

**Horregatik entzun izan diegu behin baino gehiagotan gure zaharrei Tolosaldeko euskara dela onena edo politena?**

Bai, hori betidanik entzun izan dut. Auskalo zergatik den! Koldo Zuazok euskalkien prestigioaz idatzi zuen tesian. Nola gipuzkera, batez ere Tolosa eta Donostialdekoa, eta Iparraldean Donibane Lohizune inguruko euskara hartuak izan diren euskara ona edo jatorraren erreferente moduan. Ez dago inolako arrazoi linguistikorik bata bestea baino hobea dela esateko. Donostiako batek baino gehiagok hartuko luke Bergara, Mondragoe edo Oñati aldekoak bezain euskara bizia, baina...

**Joan den astean, Euskaltzaindiaren Kongresua egin zuten. Kultura sailburu zarenetik, baduzu astirik Euskaltzaindiari eskaintzeko?**

Lan berrian hasi baino ez naiz egin, eta nahiko nuke, gutxienez, Euskaltzaindian zer lan egiten den, oharrik dudan edo ez, hiztegi batuaren kontua..., horiek guztiak jarraitzea. Ikusiko dut, ez da erraza izango.

**Hirugarren alderdi bat, Ezker Batua, hain justu, gehituko zaie EAJ eta EAri Jaurlaritzan. Onerako izango da?**

Uste dut baietz, eta lehendakariak egindako balorazioarekin guztiz bat nator, hau da, abertzale direnen eta ez direnen arteko zatiketa hausteko ahalegina egin dela. Gizarteak behar duen pluraltasunarendako oso aberasgarria da Ezker Batua Jaurlaritzan sartzea. Alde bateko zein bestekoen erreakzioek erakusten digute bide onetik goazela.

**Arantzazun sortuko den kulturaguneari bultzada eta laguntza eman dizkio Jaurlaritzak. Zer deritzozu Arantzazu birgaitzeko egitasmoari?**

Erlijioaren ikuspegiaz gain, herri honen erreferente garrantzitsu izan direla erakutsi dute Frantziskotarrek. Ikusi baino ez dago Oteizak egindako lana edo zenbat bider izan den Arantzazu euskal kulturaren bilgune eta topaleku. Bestalde, seminarioak bere lana bete duela esan daiteke, eta gaur egungo egoera zein den kontuan izanda, Arantzazun kultura azpiegitura egokiak jartzea beharrezkoa zela uste dut. Azken batean, kontua da 500 urtean egin den bidetik aurrera egitea. Jaurlaritzak 432 milioi pezeta eman ditu. Horietatik, laurogeitik gora bosgarren mendeurrenaren ospakizunetarako.

**Kultura sailburutzako arlorik garrantzitsuenetakoa hizkuntza politika da. Euskararen normalizazioari dagokionez, zein izango da zure lehentasuna?**

Bueno, euskara biziberritzeko planak finkatuta laga zituen lan-ildoak: zeintzuk diren abiatu beharreko programak, zer den estrategikoa, eta abar. Horri eutsiko diogu, lan arloan edo administrazioan, esaterako, fruituak ematen dihardulako.

**Amaitzeko, euskarazko tokian tokiko hedabideen lanari zer deritzozu?**

Oso arrakastatsu bilakatu dira eta lan bikaina egiten dute. Badute euren tokia eta euren garrantzia. Globalizazioaren kontzeptu horretan zenbat eta harantzago joan, orduan eta gehiago eskertzen du jendeak gertutasuna. Hortaz, osagarri izan daitezke herri aldizkari bat eta Washington Post, esaterako. Ikusi baino ez dago zelako harrera ona izan duten jendearen artean.



ENEKO AZKARATE

## “Tristea da euskarari oztopoak jartzen dizkiotela ikustea”

**Nafarroako gobernuak azkenaldian euskararen aurka eman dituen urratsen gainean zer iritzi daukazu?**

Euskaldun eta euskaltzain moduan, tristea iruditzen zait zenbait jarrera ikustea. Kontu bat da abertzale ez izatea eta beste bat ez konturatzea euskarak ez lukeela zerikusirik eduki behar politika kontuekin. Nafarroan, zati handi batean, euskara erabili da eta oraindik ere zati handi batean erabiltzen da, eta hori nafar guztien ondarea da. Penagarria da, euskara babesteko eta bultzatzeko bideak hartu beharrean, ahalik eta oztopo gehien jartzen dituela ikustea. Ez dakit itsutasuna edo itsukeria den, baina horrelakoak gertatzen dira...

**Eta Madrilgo gobernua prestatzen ari den Unibertsitate Legeari zer deritzozu?**

Negargarria da. Dagoenetan indarrean jartzea berrogei bat urte atzera egitea izango litzateke. Ez du kontuan hartzen unibertsitateak izan beharko lukeen autonomia egitarauak finkatzeko, ezta ikasle eta irakasleen arteko elkar trukeetan Europari begira bizi behar dugula; ez du kontuan hartzen, Konstituzioak berak hala onartuta, badaudela erkidego batzuk bi hizkuntza ofizial dituztenak; ez dira kontuan hartzen autonomia erkidegoek hezkuntzan dituzten konpetentzia guztiak...

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 28a

**Podiuma**

# Ane López de Bergara | IGERILARIA |

**Ane López de Bergara arrasatearra da. Hogei urte ditu, eta irailean Hungarian izan berri da, Espainiako selekzioarekin igeri egiten. Urak berebiziko garrantzia du Aneren bizitzan: alde batetik, igerilaria delako, eta bestetik, lan ere igerilekuan egiten duelako, ume txikien irakasle. Uztailean Ourensen izan zen, Espainiako Txapelketan, eta han lortutako emaitzei esker Hungariara joateko txartela eskuratu zuen. Hori dela eta, abuztuan ez du oporrik izan, eta txapelketarako entrenatzen aritu da burubelarri.**



Ane López de Bergara Hungarian izan da Espainiako selekzioarekin.

**Zer moduz Hungarian?**

Oso ondo, baina txapelketa denboraldi amaieran izan da, eta ordurako nekatuta nengoen. Gainera, abuztuan entrenatzen izan naiz, eta hasieran ondo nenbilen arren, bigarren astetik aurrera atseden hartzeko beharra izan dut.

**Zuzenean joan zineten Hungariara?**

Ez, abuztuaren 28an Bartzelonara joan ginen, eta bi egunez Sant Cugateko goi prestakuntza zentroan izan ginen kontzentratuta.Han ez gara askorik entrenatu, izan ere, egin beharrekoa aurretik egina zegoen, eta, gehienbat, deskantsatzen izan ginen. Abuztuaren 30ean, Hungariarako bidea hartu genuen, eta han izan gara bost egunez. Txapelketa Egeer hirian izan da, Budapestetik 200 kilometrora.

**Espero zenituen denborak egin dituzu?**

Hasiera batean, beldur apur batekin joan nintzen; lehen esan bezala, ez nengoen nire onenean. Hala ere, 800 metroetako proban nire marka hobetu nuen, baina 1.500 metroetako proban normalean egiten dudan denboran ibili nintzen. Azkenik, 4x200 metroetako proba taldeka egiten dena da, eta nekatu samar iritsi ginen. Zortea ez genuen lagun izan, taldekide batek betaurrekoekin arazoak izan eta denbora asko galdu zuen-eta. Jeneralean, emaitza positiboak izan ditugu, eta ni gustura gelditu naiz han egindako lanarekin.

> **"Denboraldia luzea izan da, eta Hungariara nekatuta joan nintzen. Hala ere, oso gustura nago han egindakoarekin"**

> **"Martxoan, Espainiako Neguko Txapelketa jokatuko da Mallorkan, eta nik han egotea espero dut, Euskal selekzioarekin"**

**Kirol hau egiteko asko zaintzen duzu jaten duzuna?**

Aurten bai. Ez dut dietarik egiten, baina hidrato asko daukan janaria jaten dut, pasta, adibidez. Horrez gain, geroago eta koipe gutxiago izan, orduan eta hobeto. Hortaz, gurina, maionesa eta horrelakoak alde batera utzi behar ditut.

**Zer-nolako probak atsegin dituzu?**

Distantzia luzeko probetan hobeto aritzen naiz, baina ez da gustuko ditudalako. Zeharkaldiak ere asko gustatzen zaizkit, Bidasoako jaitsiera, hiru hondartzak Donostian eta, horrez gain, lakuetan izaten diren zeharkaldiak ere atsegin ditut.

**Igeriketa, lana edo bizibidea?**

Biak. Orain, Gasteizen ari naiz lanean, ume txikiekin egiten dut lan. Hidroterapiako ikastaroa egiteko aukera ere izan dut, eta polita izango litzateke arazoak dituzten umeekin uretan aritzea. Lehiatzea polita da, baina beste gauza asko ere egin daitezke.

**Denboraldia amaitu berri duzu; orain, oporretan?**

Bai eta ez. Igeriketako denboraldia amaitu da, baina lana daukat, eta nire lana uretan egiten dut, hortaz... Horrez gain, ez dut oporraldi luzerik izango, Maritxu Kajoren ondoren berriro ere entrenatzen hasi beharko naiz-eta.

**Maritxutan, hortaz, parranda egiteko asmorik?**

Oraindik ez dut erabaki, baina baietz esango nuke.

**Noiz izango duzu hurrengo txapelketa garrantzitsua?**

Denboraldia hasterakoan, hemen inguruan izango ditugu lehenengo txapelketak, baina agian garrantzitsuena Espainiako Neguko Txapelketa izango da. Txapelketa hori martxoan jokatuko da Mallorkan, eta espero dut ni han izatea, euskal selekzioarekin.

XABI URZELAI

## Markel Irizar 9.a Nazioarteko Sarian

Markel Irizar (Olarra-Ercoreca) txirrindulari oñatiarra 9. postuan sailkatu zen joan zen zapatuan Saint Romain de Colbosc-en (Frantzian) jokatutako Nazioarteko Sari Nagusian. Erlojupeko proban (37 kilometro), Irizarrek lasterketa bikaina egin zuen, eta Mart Louwers irabazlearen aldean minutu bat eta 23 segundo galdu zituen bakarrik. Markelek urrriaren 9an Lisboan jokatuko den munduko txapelketan parte hartzeko txartela lortu du.

## Igeriketa egokitu zerbitzua martxan datorren astetik Debagoieneko hainbat herritan

Buru, gorputz edo zentzumenezko ezgaitasuna duten pertsonei zuzendutako igeriketa egokitu zerbitzua jarriko da martxan datorren astean Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin. Ikasleentzat zein helduentzat klaseak egongo dira. Zerbitzu honen helburu nagusia ezgaitasunaren ondorioz sortutako arazoak konpentsatzea litzateke. Astean 45 minutuko saio bat edo bi izango dira. Argibideak Udal Kirol zerbitzuetan.



ATZOKO TXAPELDUNAK

## Iñigo Igartua Txirrindularia



Iñigo Igartua txirrindulari bergararra Zarautzen, 1992an.

**Espainiako ziklokros txapeldun birritan**

**Hamaika aldiz parte hartu zuen mundialean**

**Bizikleta denda zabaldu zuen 1997an Bergaran**

Oraindik gaztea izan arren, dagoeneko zazpi urte igaro dira bizikleta utzi zuenetik hona. Ordu arte, palmares bikaina lortu zuen, eta ziklokroseko euskal txirrindulari onenetako bat izatera iritsi zen. Bost aldiz izan zen Euskadiko txapeldun, Espainiako Txapelketa bi bider jarraian irabazi zuen (1990ean eta 91n) eta, horrez gain, hamaika aldiz parte hartu zuen Munduko Txapelketan; Getxokoan lortu zuen sailkapenik onena (15. izan zen), 1990ean. Iñigok gogoratzen duenez, "urte hartan, Espainiako Txapelketan, laugarren izan nintzen. Oso zirkuitu azkarra zen, eta Pla katalanak irabazi zuen. Mundialean, berriz, lokatz pixka bat zegoen, eta horrelako zirkuituetan moldatzen nintzen ondoen. Plari itzulia kendu nion Getxon". Horrez gain, makina bat lasterketa irabazi zuen Euskal Herrian eta Estatuan, eta Europa mailako Superprestio ospetsuan ere parte hartu zuen, munduko onenekin batera. Oso gaztetatik ziklokroserako kualitateak azaldu zituen: "Ziklokrosean, ordubetez, erritmo gogorrari eutsi beharra dago, biziagoa da. Irteerak izugarrizko garrantzia du eta indarra, potentzia, abilezia eta teknika ezinbestekoak dira". Hiru urtean Belgikara joan zen denboraldia gertatzera eta, besteak beste, Danny De Bie, Paul De Brawer edo Mario De Clerk-ekin batera entrenatzen zen han, teknika lantzeko, gehienbat. Iñigoren ustetan, "errepideko probei askoz ere arreta handiagoa eskaintzen zaie, telebista ere tartean da-eta; horren ondorioz, ziklokrosak indarra galdu du. Hala ere, Estatu Batuetan, esaterako, izugarrizko zaletasuna dago". Errepidean lasterketa bakarra irabazi zuen Iñigok, Gabirian, 1988an.

1997an bizikleta denda ireki zuen. Ez du bizikletarako zaletasuna galdu; aurten, *Quebrantahuesos* proba ezaguna egin du. /E.M.

> ***"Irteerak izugarrizko garrantzia du ziklokros probetan. Horrez gain, indarra, potentzia, abilezia eta teknika ezinbestekoak dira"***



Iñigo Igartua • Bergara • 1968

ARAOTZ Merenderua

## Araotz merenderua

Araotz auzoa, 2 / OÑATI
943 78 35 26

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Garaian garaiko platerrak

**Berezitasunak**
- Etxeko txorizo eta odolosteak
- Aurrez eskatuta bildotsa burduntzian

**Eguenetik domekara zabalik**






## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 150 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Hilarion jatetxea

Larrea plaza, 5 / ARRASATE
943 77 01 69

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Bataioak
- Jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Legatz betea "Hilarion" erara
- Almejak "Hilarion" erara

Ondo pasau Maritxu Kajoi egunean!



## Ibarra jatetxea

Araba etorbidea, 29 / ARETXABALETA
943 79 69 86

**Eskaintza**
- Menua
- Karta larunbatetan
- Plater konbinatuak
- Gazte taldeentzat prezio bereziak

**Berezitasunak**
- Kokotea
- Txuletoia
- Lupina
- Almejak

**Enkargurik ezean domekak itxita.**



## Mitarte Garai

NEKAZAL TURISMOA

(Urkuluko urtegitik gertu)
Areantza auzoa / ARETXABALETA
943 79 17 51

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Enkarguak

**Berezitasunak**
- Bildotsa
- Etxeko gazta, txorizoa eta ogia

**Astelehenetan itxita**



## Panaderokua jatetxea

Salbador kalea, 10 / ELGETA
943 76 82 73

**Eskaintza**
- Menua
- Karta
- Kintadak

**Berezitasunak**
- Asteburu eta jaiegunetan bertako babak saiheski errearekin
- Asteburuko menu berezia

**Martitzen arratsaldetan itxita**



## Torrekua jatetxea

Ibargarai, 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa, 1 / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandetan itxita**

UDAZKENA BERO-BERO DATOR



# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko irailaren 28a

Kultura eta Aisialdia

Irailaren 28tik urriaren 5era





# Gizakia zerura begira

Irailaren 11n Estatu Batuek jasan zuten erasoak hainbat eztabaida gai suspertu ditu. Horien artean, teknologiaren erabilera nazioarteko harremanetarako. Izan ere, erasotzaileek, Estatu Batuek eta beste herrialde batzuek abian jarritako espioitza programa bat, Echelon famatua, akats barikoa ez dela erakutsi zuten. Echelonek, beste hainbat komunikazio, informazio eta espioitza sistemak bezala, lurrean du hanka bat eta espazioan bestea; izan ere, gaur egun pentsa ezinekoa da sateliterik erabiltzen ez duen komunikazio sare handi bat eraikitzea. Zerua, espazioa, erabili izan du eta erabiltzen jarraitzen du gizakiak bere egitasmo handienen sostengu eta ispilu bezala. Neil Armstrongek Ilargia zapaldu zuenean honakoa esan ei zuen: "Urrats txiki bat niretako, jauzi handi bat gizadiarendako". Ordudanik, urratsak ematen jarraitu dugu gure planetatik kanpo, hor, gure inguruan, zer dagoen jakin guran eta gure mesederako erabili guran. LEIRE KORTABARRIA /14

GOIO ARANA

Astronomia | Satelite artifizialak

# Guztiondako mesede, ondo erabiliz gero

SATELITEEK HAINBAT ERABILPEN DITUZTE; EZINBESTEKOAK DIRA KOMUNIKAZIORAKO, BAINA ESPIOITZARAKO ERE ERABILTZEN DITUZTE

**Gau garbi baten, bista ona duen batek zerura begiratzen badu, begi hutsez, 3.000 bat argizagi ikus ditzake. Lurreko puntu jakin batetik espazio erdia besterik ezin daitekeenez ikusi, urtearen buruan 6.000 bat argizagi begiztatuko genituzke. Izarrak, planetak, galaxiak, nebulosak... naturak ipinitakoak dira. Baina horiek ez dira zeruko "bonbillatxo" bakarrak.**

Gizakiak espazioaren konkista hasi zuenetik, apurka-apurka, berak sortutako asteroideak gehitu dizkie unibertsoan zeudenei. Ondorioz, satelite artifizialak ditugu gure zerbitzura. Edo, behintzat, gutariko batzuen zerbitzura.

Berba asko egin da, eta are gehiago irailaren 11tik aurrera, Echelon informazio eta espioitza sare erraldoiaren inguruan. Komunikazio intertzeptaziorako Estatu Batuek, Erresuma Batuak, Kanadak, Australiak eta Zeelanda Berriak antolatutako sistema da Echelon. 1971tik dago martxan, eta, telefono elkarrizketa, posta elektronikoko mezuak, satelite transmisioak, fax mezuak, eta beste hainbat urrutiko komunikazio mota hartuta, egunero hiru bilioi komunikazio atzeman ditzakeela uste da. Horretarako bide asko erabiltzen ditu Echelonek, eta satelite artifizialak dira garrantzitsuenetarikoak; alde batetik, informazio mota jakin batzuk bereganatzeko, eta bestetik, datu horiek espioitza zentro egokietara bidaltzeko.

### Komunikaziorako beharrezkoak

Argi dago ezingo litzatekeela Echelon bezalako mundu mailako espioitza sarea ezarri satelite artifizialak erabili barik. Baina, zergatik dira hain beharrezkoak?

"Lurra borobila denez, ezinezkoa da emisio bat distantzia handira helaraztea, uhinak ezin direlako kurbatu. Horregatik, seinalea satelite batera bidaltzen da, eta sateliteak ispilu antzeko lana egiten du uhinak, errebotez, Lurreko beste kokapen jakin bateraino bidaltzen ditu", Jesus Arregi astronomo debagoiendarrak azaldu digunez. Sateliteei esker jasotzen ditugu telebista edo irrati kateen emisioak, besteak beste. Horretarako, 100 komunikazio satelitetik gora daude, Lurretik 30.000 kilometro inguruko distantziara.

Kopuru hori handituz joango da, teknologia hobekuntzak direla-eta; kontuan hartu behar da zaharkituta gelditzen diren sateliteak ez direla berriro lurreraratzen "Aurrerapen oso handiak egiten dira, eta oso agudo. Batez ere, seinalea kudeatzeko ahalmena hobetzen da, eta zerbitzuak geroago eta azkarrago eta hobeak dira", dio astronomian adituak. Aurrerapenek helburu jakina dute, eta ez da telebista seinalea bideratzea bezain helburu inuzentea "Espioitza da gehien landu den esparrua. Aurrerapenak arlo horretan aplikatzen dira lehenbizi; gero zabaltzen dira eremu komertzialetara"; Arregik dioskunez.

### Erabilera txarrak

Irailaren 11an gertatu zenak gauza asko aldatuko dituela ematen du. Sateliteen erabilpenaren kasuan ere ondorio nabarmenak izango dituzte gertakari haiek "Espioitza eta estrategia izan dira sateliteen lehenengo erabilpena. Orain, hori areagotu egingo da, zalantza barik", aurresan du astronomoak. "Beste eremu batzuen artean, komunikazio eta garraio arloak satelite bidez kontrolatzen saiatuko dira hainbat herrialde", gaineratu du.

Horren arriskua azpimarratu dute hainbat pentsalarik, ez bakarrik herritarron bizitza pribatua kontrolatzeko aukera, baita diktadura bat inposatzeko aukera ere, aipatu dituzte. Arregik honakoa dio: "Akaso bada ordua herritarrok dentzoguna esateko."

LEIRE KORTABARRIA

## JESUS ARREGI / FISIKARI ETA ASTRONOMOA

# "Martitzera joateak ez du aparteko aldaketarik ekarriko, baina teknologia aurreratua dugula esan gurako du"

**Jesus Arregi atxabaltarra Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da; eta ona behar du izan, elkarrizketa honetan bezain azalpen garbiak eta zehatzak emateen baditu han. Fisikaria izatez eta astronomoa zaletasunez, modu samurrean banatzen du bere jakituria entzun gura dionarekin.**



LEIRE KORTABARRIA

**Astronomiaren barne, arlo gogokoagorik baduzu?**

Bai, kosmologia. Arlo horrek unibertsoaren sorrera eta gaur egunera arteko garapena ikertzen du. Gero, etorkizunerako hipotesiak plazaratzen dira.

**Unibertsoaren jatorriak misterioa izaten jarraitzen du?**

Gaur egun, Big Bang edo leherketa handiaren teoria onartua dago hau da, leherketa handi bat gertatu zen, eta argia, materia... oso tenperatura altuetan sortu ziren. Gerora, tenperatura jaitsi ahala, materia hori bildu eta elkartuz joan zen, izarrak, planetak... sortu arte. Ez dago hain garbi, ordea, leherketa hori zelan edo zergatik gertatu zen. Horren gaineko ikerketarik ere ez da falta, batez ere fisika kuantikoaren esparruan. Horren arabera, hutsa eta ezereza ez dira gauza bera; ezerezetik ezin daiteke ezer jaio, baina hutsetik, bai.

**Orain, aldiz, espazioa ez dago hutsik, zaborrez beteta baizik...**

Hala da. Nabigazio espazialak 40 urteko historia besterik ez du, baina oso azkar garatu da; epe horretan, satelite asko eta asko ipini dira orbitan, eta horien teknologia atzeratua geratutakoan, hantxe geratzen dira, ezertarako erabili barik, bueltaka eta bueltaka. Satelite zaharrak apurtzen badira, zatiak ere zeruan gelditzen dira. 300 kilometroko altueratik gora daude horiek.

**Arriskurik badakarte?**

Guregan, zuzenean, ez; astronautengan izan dezakete eraginik. Adibidez, espazio estazioko kanpo aldera irteten badira konponketaren bat egitera edo, zabor zati batek jo ditzake. Espaziora bidalitako ontziren bat jo eta misioa hondatzearen arriskua ere badago. Izan ere, zati horiek 30.000 kilometro orduko abiada har dezakete.

**Eta gu gure horretan, espazioa konkistatu guran... Non izango da muga?**

Naturak muga handiak ipintzen ditu. Eguzki sistematik irteterik ez dago; bestalde, Esne-Bidean bertan, Martitzetik harantzago joateak ere ez du zentzurik; izan ere, gainerako planetek ez dute guretako bizi baldintzarik eskaintzen, eta geuk ere ez dugu hara egokitzeko modurik.

**Martitzera, noizko?**

Data asko aipatzen dira. Nire ustez, hogei urteko kontua izango da gizakia hara iristea. Gaur egun, bidaia horrek bi urte hartuko lituzke, eta ezin daiteke gizakirik bidali.

**Horrek zein ondorio izango ditu?**

Ilargira iristeak zein ondorio izan zituen? Gizakiaren aurrerapauso bat kontsideratu zen hura. Martitzera joateak ez du aparteko ezer aldatuko; baina horrek esan gurako du teknologia oso aurreratua eta fidagarria dugula, eta bide berriak zabalduko ditu. Ilargian eta Martitzen, beharbada, estazio egonkorrak eraikiko dira, zientzialariek ikerketak egin ahal izan ditzaten.

**Hori lortu orduko, ez ote du meteorito edo kometaren batek gure Lurra birrinduko? Ala katastrofista hutsak gara?**

Arriskua egon, badago, baina oso-oso txikia da. NEAR izeneko programa bat dago martxan, Lurraren inguruan dabiltzan asteroideguztiak aurkitu eta gurekin topo egiteko probabilitatea aurresateko. Kontua da Lurretik Ilargira distantzia halako bi eta erdira pasa izan direla haitz horiek, eta hori, Esne-Bidea hartuta, oso distantzia txikia dela... Bestalde, haitz horiek planetekin topo egitean, orbita alda dezakete. Baina tira, oraingoz behintzat, lasai bizi gaitezke./L.K.

"Hogei bat urteko kontua izango da gizakia planeta gorrira iristea"

# San Migel jaiak

## ARETXABALETA

### Egubakoitza 28

- **18:30** San Migel jaiei hasiera emateko txupinazoa eta japoniar bonbak Herriko plazan.
- **19:00** Erraldoi eta buruhandien kalejira, Aretxabaltako txistulariek lagunduta.
- **21:00** Triki Ta Ke musika taldearen emanaldia Herriko plazan.
- **23:00** Triki Ta Ke musika taldearen emanaldia Herriko plazan.

### Zapatua 29

- **10:30** Diana herriko txistulariekin.
- **11:00** Txalaparta Durana kalean. Loramendi taldeak antolatuta.
- **11:30** Trikitilariek herriko kaleak alaituko dituzte.
- **12:30** Salda Durana kalean. Loramendi taldeak antolatuta.
- **13:00** Jesus Mari Irazu eta Xabier Zeberio bertsolariak, Loramendi taldeak antolatuta.
- **14:30** Gestorek eta Segik antolatuta, Euskal presoak etxera lemapean Herri bazkaria. Eguraldiaren arabera, Iturrigorri Frontoian edo Durana kalean egingo da. Ondoren, Asto karrera Durana kalean.
- **17:00** Hala Gera gaiteroek herriko kaleak alaituko dituzte. Loramendik antolatuta.
- **19:00** Beinke-Loramendi dantza herriko plazan, Loramendik antolatua, Musika Eskola eta Loramendi dantza taldearen laguntzaz. Joxe San Migueli Agurra.
- **20:00** Larrin dantza Durana kalean, Loramendik antolatuta.
- **22:30** IX. San Migel Bolo Txapelkeța. Izenematea:.1.000 pta.
- **22:30** Izotz taldearekin dantzaldia Herriko plazan.
- **23:00** Iturrigorri frontoian, afizionatu mailako pilota partiduak.
- Horretaz gain Goizeko 11:00etatik 20:00etara, Artisau feria eta VII. azoka ekologikoa Herriko plazan. Eta gainera taloak, sagardoa...

### Domeka 30

- **10:00** Durana kalean, Gazteendako Udazkeneko Kriteriumaren hasiera. Bukaera, 11:30etan Mendiolako auzoan.
- **13:00** Herri kirolak aurtengo eginkizuna, ikuskizuna eta entretenimendua sortzea da. Horretarako, motozerraz egurra landuko dute.
- **16:00** Erlojuz kontrako txirrindulari lasterketa.
- **16:00** IX. San Migel Mus Txapelketa. Izenematea 2.000 pta. (15:15etik 15:45era).
- **16:30** Aretxartek antolatuta, haurrentzako parkeak.
- **20:30** Erlojuz kontrako txirrindulari lasterketaren bukaera. Helmuga Durana Kalean.
- **18:00** "Re+fa zuzenean", Tirri tarra. Herriko plazan.

## OÑATI

### Egubakoitza 28

- **18:00** Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
- **18:30** Txistulari bandaren kalejira.
- **19:00** Meza nagusia San Migel parrokian.
- **20:00** Txupinazoa eta txantxikuaren jaitsiera txosnetan.
- **20:00** Etzakit taldearen kontzertua Foru Enparantzan.
- **23:00** Danborrada nagusia herriko kaleetan zehar.
- **24:00** Etzakit taldearen kontzertua.

### Zapatua 29

- **09:00** Txistulari bandaren goizeresia.
- **10:00** Herri mailako plater tiraketa Txopekua tiro zelaian.
- **11:00** Elkar meza nagusia San Migel parrokian.
- **11:30** Aloña Mendi-Real Sociedad, ohorezko mailako futbol partidua Ibarran.
- **12:00** Musika bandaren kalejira
- **12:00** Haur parkea Etxaluze osteko parkean (euria egingo balu Zubikoa kiroldegian izango da)
- **13:00** Musika bandaren kontzertua plazan. *A San Miguel*. Martxa. Refice. *Caballeria Ligera*. Obertura. F. Von Suppé. *The Beatles in Concert*. L. Mc Cartney. *Euskeria*. Euskal Rapsodia. M. San Migel.
- **17:00** Aloña Mendi-Ordizia, gazte mailako partidua Azkoagain futbol zelaian.
- **17:00** X.VIII San Miguel sariko pilota partiduak Zubikoa pilotalekuan.
- **18:00** Aloña Mendi eskubaloi taldearen 25 urteurreneko argazki erakusketa Foru Enparantzan. San Migel Bixamonean ere izango da goizez eta arratsaldez.
- **18:30** Trialsin erakustaldia Foru Enparantzan. Euria egingo balu erakustaldia bertan behera geratuko da.
- **20:00** Iratxo taldearekin dantzaldia Foru Enparantzan.
- **23:00** Trio Txarango taldearen ikuskizuna Foru Enparantzan.
- **23:00** Oñatiko Rock taldeen kontzertua txosnetan.
- **24:30** Iratxo taldearekin dantzaldia Foru Enparantzan.

### Domeka 30

- **09:00** Iriarena herriko Txistulari bandarekin.
- **09:30** Arno abeltzantzako zezenekin sokamuturra ohiko kaleetan.
- **10:00** Natur Gasek ekarritako globo aerostatikoa Ibarran.
- **12:00** Pasai txarangaren kalejira egun osoan zehar.
- **16:30** Iriarena Txistulari bandarekin.
- **17:00** Sokamuturra ohiko kaleetan.
- **18.00** Arku tiraketa erakustaldia Olaiturrin. (Euria egingo balu zubikoa kiroldegian izango da).
- **19:00** Txokolate jana eta ondoren Eriz magoa txosnetan.
- **20:00** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia Foru Enparantzan.



**Jaien egarriz dagoenak badauka non asetu. Izan ere, San Migel jaiak non nahi izango ditugu asteburuan: Oñatin, Aretxabaletan, Garagartzan eta Angiozarren. Era askotako ekitaldiak antolatu dituzte, gainera, gaur hasi eta domekera bitartean. Oñatin, hurrengo asteburuan ere izango dituzte jaiak, baina, oraingoz, asteburu honetarako egingo dugu plana. Parrandazale izanez gero, herri batetik bestera aritzeko aukera ere izango da: Aretxabaletan hasi, Garagartzan segi, gero Oñatira eta, azkenik, Angiozarren bukatu. Eta, astelehenean..., lanera!**

## ANGIOZAR

### Egubakoitza 28

- **20:00** Jaien hasiera etxafleoak, kanpai jotzea eta ikurriña jartzea Herriko etxean.
- **22:00** Briska txapelketa Pagomendi elkartean. Autopulmans Araba sari nagusia.
- **23:00** Dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin.

Goizaldean txokolate beroa Pagomendi elkartean.

### Zapatua 29

- **11:00** Meza nagusia jubilatuen koruarekin. Ondoren, luntxa jubilatuentzat Pagomendi elkartean.
- **12:00** Trikitilatriekin kalejira eta txikiteoa.
- **15:30** Plater tiraketa txapelketa.
- **16:00** Umeendako jolasak.
- **21:00** Mozorro afaria sardinak eta saiheskia elizpean. Saria mozorro onenarentzat
- **12:00** Dantzaldia Hator taldearekin.

### Domeka 30

- **12:00** Bertsolariak Arkaitz Estiballes eta Ainhoa Agirreazaldegi.
- **13:00** Kalejira eta txikiteoa.
- **17:00** Mux Txapelketa Pgomemndi elkartean. Hamar erregetara. Autopulmas Araba sari nagusia.
- **17:00** Umeendako jolasak.
- **18:00** Poniak eta zezenak Herriko plazan.
- **20:30** San Migel zeruratzea, "Agur, agur Mikel guria, zaindu egizu gure herria" kantatuz.

## GARAGARTZA

### Egubakoitza 28

- **19:30** Jaien hasiera.
- **20:00** Biotzatarrak txarangarekin kalejira.
- **22:00** Haitzama taldearekin dantzaldia.

### Zapatua 29

- **12:00** Meza.
- **12:00** Puzgarriak, ohe elastikoak eta zezen mekanikoa. Arratsaldez, 16:00etatik aurrera, umeendako jolasak.
- **18:00** Irrati bidez kontrolatutako kotxeen Garagartzako 3. saria.
- **20:00** Ikabi taldearekin dantzaldia.
- **4:00** Txokolatada.

### Domeka 30

- **12:00** Meza.
- **12:30** Dantza erakustaldia.
- **14:30** Auzo bazkaria.
- **18:30** Haitzama taldearekin dantzaldia.

# Iraila: 28-5

Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ARRASATE**

> **MacRea Clarke** irlandar komikoa egubakoitzean, hilak 28, gauerdian, Iamai kafetegian.

**ELORRIO**

> **Julio Perugorria producciones** taldearen *Los días felices* antzezlanaren estreinaldia egubakoitzean, hilak 28, Arriola aretoan, 22:30ean.

## Musika

**BERGARA**

> **The Demonics eta Surfing Bloody Marys** egubakoitzean, hilak 28, Jam aretoan, 22:00etan. 1.700 pezeta.

> **Entombed, Cathedral, 2 Ton Predator eta The Dismal** domekan, hilak 30, Jam aretoan, 20:30ean. 3.000 pezeta (2.500 aurrez).

> **Ocean Colour Scene eta Bide ertzean** egubakoitzean, urriak 5, Jam aretoan, 22:00etan. 3.200 pezeta (2.800 aurrez).

**ELGETA**

> **Ertzaintzaren Musika Bandaren** emanaldia domekan, hilak 30, Espaloia antzokian, 12:30ean.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Juan Gonzalez Cuestaren** pintura erakusketa Harresi aretoan (Iturriotz 35) irailaren 30era arte. Aste barruan 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**BERGARA**

> **Marilu Untzurruntzagaren** olio erakusketa Nahikari tabernan.

> **Jose Antonio Laskurainen** margoak La Caixako bulegoan urriaren bukaerara arte.

**OÑATI**

> **500 urtez frantziskotarrak Arantzazun** izenburuko erakusketa Arantzazuko Santutegian. Goizeko 11:00etatik 19:00ak arte. Astelehenetan itxita.

## Lehiaketak

**ARRASATE**

> **Argazki lehiaketa** deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zuribeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.

> **Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkez daitezke. Jatorrizko testuen lehen argitalpena 1998, 1999, 2000 edo 2001 urteetan argitaratua egon behar du eta Internetetik hartutako testuen aintzinatasuna ere egiaztatu beharko da. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartean, 943 77 12 28 telefonoan.

**BERGARA**

> **XI. Kirol argazkien lehiaketa.** Euskal Herriko edozein afizionatik parte hartu ahal izango du eta zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, mota bakoitzeko lau argazki gehienez. Kategoria bakoitzeko onenak 25.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu. Beste hainbat sari ere banatuko dira. Lanak entregatzeko epea urriaren 24an bukatuko da. Argibideak: 943 76 30 90.

**DEBAGOIENA**

> **Kirol materiala euskaraz sortzeko beka,** Deba arroko euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII. aldiaren helburua da hiru arlotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarrizko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea bost hilabetekoa izango da. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

**EIBAR**

> **Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa.** Nahi duten argazkizale guztiek parte har dezakete. Gaia librea izango da eta gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru koloretan aurkeztu ahal izango dira. Koloretako zein zuri-beltzeko argazki bildumarik onenak 80.000 pezetako saria jasoko du eta argazki solte onenendako ere sariak izango dira. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da, eta ondoko helbidera bidali beharko dira: Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Portalea. Eibarko Udala. Bista Eder 10. 20600 Eibar. Argibide gehiago 943 20 68 45 telefonoan.

> **Juan San Martin beka.** Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, ikerketa-bekarako deia egin du. Ikerketa esparruak hauek liratake: antropologia, hizkuntzalaritza, filologia, toponimia, filosofia, literatura, botanika, artea, historia, kazetaritza, etnologia, mendizaletasuna eta zuzenbidea. Beka honen zenbatekoa 1.500.000 pezetakoa izango da. Eskaerak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea urriaren 23ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 20 68 45 telefono zenbakian.

**ELGOIBAR**

> **Komiki lehiaketa.** Elgoibarko Kultura Zerbitzuak eta Kokoe komikilarien taldeak komiki lehiaketa antolatu dute. Gura duenak parte har dezake lehiaketan. Komikiek lau orriko luzera izan beharko dute, 18x24 zentimetroko formatuan eta zuri-beltzean. Hiru sari nagusi izango dira: 80.000 pezeta lehenengoarendako, 60.000 pezeta bigarrenarendako eta 40.000 pezeta hirugarrenarendako. Urriaren 11 arte izango da lanak aurkezteko epea: Kultura Zerbitzua, Nafarroa plaza 3. 20870 Elgoibar.

**ANDOAIN**

> **Bidaien eta Mendi Kroniken Lehiaketa** deitu du *Euskaldunon Egunkariak*. Edozeinendako dago zabalik lehiaketa. Testu argitaragabeak, gehienez, 11.000 karaktere izan behar du (orri bi eta erdi alde batetik). Euskarazko idazlanarekin batera 6-8 argazki edo diapositiba aurkeztuko dira. Irabazleak lau lagunendako autokarabana izango du astebeterako, gura duen lekura joan ahal izateko. Lanak urriaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibideak 943 30 02 22 telefono zenbakian.

**LASARTE-ORIA**

> **Gazteak eta euskara ikertzeko beka.** Beka horren helburua da Lasarte-Oriako gazteek euskararen gainean dituzten jarreren diagnosia egitea. Lana egiteko epea 12 hilabetekoa izango da, eta bekaren zenbatekoa 1.000.000 pezeta (6.010,12 euro). Proiektua eta gainerako agiriak aurkezteko epea urriaren 31ra arte egongo da zabalik. Argibideak 943 37 60 55 zenbakian.

**BILBO**

> **Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa.** Nazio guztietako idazleek parte har dezakete, gai libreko ipuin originalak, argitaratu gabeak eta lehenago beste lehiaketa batean sarituak izan ez direnak aurkeztuta. Ipuinak gehienez DIN A-4 motako 15 orrikoak izango dira, orrialde bakarretik eta tarte bikoitzean idatzita. Ipuinak euskaraz zein gaztelaniaz idatzi ahal izango dira eta beste hizkuntzetatik egindako itzulpenak ez dira onartuko. 550.000 pezeta gordineko sari bana eta 225.000 pezeta gordineko bina azkezit egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko modalitateetan. Lanak helbide honetan aurkeztuko dira: Bilboko Udala. Kultura eta Turismo Saila. Gabriel Aresti XIX. Ipuin Lehiaketa. Ernesto Erkoreka plaza z/g. 48007 Bilbo. Ipuinak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da.

## Ikastaroak

**ANTZUOLA**

> **Grafologia ikastaroa** Udaletxean urriaren 20an, 27an eta azaroaren 10ean, 17an eta 24an, 10:30etik 12:30era, Irune Ibarraren eskutik. Izena ematekо epea urriaren 8an amaitzen da. Argibideak: 943 76 62 46.

**ARETXABALETA**

> **Oinarrizko taila ikastaroa,** Okila elkarteak antolatuta. Ikastaroa urriaren 1ean hasiko da eta eskolak astelehen, martitzen eta eguaztenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara (60 ordu). Izena ematea Udaletxean, kultura etxean edo Okila elkartean (943 79 30 71).

> **Yoga hastapen ikastaroa.** Eguaztenetan eta egubakoitzetan 10:00etan, edo martitzenetan eta eguenetan, 20:30ean. Argibideak: 616 96 57 95.



JULIO CALLEJA

ZINEA

### "AITA GURIA" FILM LABURRAREN ESTREINALDIA

Jon Andueza arrasatearrak uztailean Elgetan errodatutako "Aita Guria" film laburraren estreinaldia izango da gaur. Besteak beste, Martxelo Rubio, Oihana Maritorena edo Mikel Antero ditugu filmeko protagonista nagusiak. Horiekin batera, Elgetako hainbat lagun ere aritu ziren aktore lanetan. Gaurko estreinaldia 22:00etan izango da. Aurretik "Bernar" (21:00etan) eta "40 ezetz" (21:30) film laburrak ikusteko aukera izango da.

**Noiz:** egubakoitzean, hilak 28. **Non:** Elgetako Espaloia antzokian. **Ordua:** 21:00etan. **Sarrera:** 500 pta.



## Grafologia ikastaroa

Irune Ibarra psikologoaren eskutik grafologia ikastaroa izango da Antzuolan

Urriaren 20 eta 27an eta azaroaren 10, 17 eta 24an

# Zinema

### ARRASATE / ALAI ZINEMA

***Operacion Sword Fish***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

***Spy kids***
Zapatua eta domeka: 17:00.

### BERGARA / NOVEDADES

***Operación Sword Fish***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***Rugrats en Paris***
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

***Sin dejar huella***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

### EIBAR

#### UNZAGA

***La pareja del año***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### RIALTO

***Los otros***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA

***Tomb raider***
Egubakoitza: 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 22:15.

### ELORRIO / ARRIOLA

***Shiner***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

### AZKOITIA / BAZTARTXO

***Las seductoras***
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

### GASTEIZ

#### GURIDI

***El planeta de los simios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Inteligencia artificial***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***La pareja del año***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***La otra cara del crimen***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Chicos y chicas***
Egubakoitzatik eguenera: 17:30.

***Nadie es perfecto***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Los otros***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***El beso del dragón***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

#### MIKELDI ZINEMAK

***La otra cara del crimen***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Mejor que el sexo***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***El planeta de los simios***
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Los otros***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Shrek***
Zapatua eta domeka:16:30, 18:30.
Astebarruan: 17:15.

***Marujas asesinas***
Egubakoitza: 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00, 22:30.

***Chicos y chicas***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***¿Qué más puede pasar?***
Egubakoitza: 17.15, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Inteligencia artificial***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:15.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Juego de luna***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 01:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 01:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

#### FLORIDA-GURIDI

***Destino de caballero***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 12:30, 17:00, 19:45, 22:30.

***Juana La Loca***
Egubakoitza eta zapatua: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30.

***Juego de luna***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ösmosis Jones***
Egubakoitzatik eguenera: 12:30, 17:30.

***Lucía y el sexo***
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Nueve reinas***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***The filth and the fury***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 20:00, 22:30.

***Salvajes***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Sacrificio***
Eguena: 19:45.

#### STER ZINEMAK

***Los otros***
Egunero: 12:05, 14:15 (goizekoa), 16:20, 18:30, 20:40, 22:50, 01:00 (gauekoa).

***El planeta de los simios***
Egunero: 12:15, 15:55, 18:35, 21:30, 00:00 (gauekoa).

***Destino de caballero***
Egunero: 12:35, 15:50, 18:25, 21:00, 00:15 (gauekoa).

***Juana La Loca***
Egunero: 12:10, 16:05, 18:20, 20:35, 22:50, 01:05 (gauekoa).

***La pareja del año***
Egunero: 12:00, 14:05 (goizekoa), 16:10, 18:15, 20:20, 22:30, 00:40 (gauekoa).

***Lucía y el sexo***
Egunero: 19:50, 22:20, 00:50 (gauekoa).

***Inteligencia artificial***
Egunero: 12:40, 15:45, 18:40, 21:40, 00:30 (gauekoa).

***¿Qué más puede pasar?***
Egunero: 20:10, 22:10, 00:20 (gauekoa).

***Shrek***
Egunero: 12:20, 14:10 (goizekoa), 16:00, 18:00.

***Spy kids***
Egunero: 12:05, 14:30 (goizekoa), 16:25, 18:10.

***El beso del dragón***
Egunero: 12:25, 14:20 (goizekoa), 16:15, 18:05, 20:00, 22:00, 00.10.

Goizeko emanaldiak zapatuan eta domekan.
Gauekoak egubakoitzean eta zapatuan.




**SIN DEJAR HUELLA**
**ZUZENDARIA: MARIA NOVARO. AKTOREAK: AITANA SANCHEZ-GIJÓN, TIARÉ SCANDA, JESÚS OCHOA.**
Maria Novaro mexikarraren film honekin hasiko da zine-klubaren programazioa. Bere seme-alaben etorkizuna aldatzeko asmoz, *Aurelia*k (Tiaré Scanda) arte trafikantea den *Ana*ren (Aitana Sánchez-Gijón) laguntzaz bidaia egingo du Mexikon zehar, Ciudad Juarezetik hasi eta Cancuneraino. Sundanceko zine jaialdian saritu zuten filma.

**OPERACION SWORD FISH**
**ZUZENDARIA: DOMINIC SENA. AKTOREAK: JOHN TRAVOLTA, HUGH JACKMAN, HALLE BERRY, DON CHEADLE.**
*Gabriel Shear* (John Travolta) izeneko espia arriskutsuak legez kanpoko diru publikoak bereganatu nahi ditu, baina horretarako *superhacker* baten laguntza beharrezkoa izango du. Segurtasun sistema sofistikatuenak ere ume baten jokoa balira erabiltzen dituzte informatika adituek. *Stanley* (Hugh Jackman) dugu onenetako bat, eta *Gabriel* eta *Ginger* bere neskalaguna (Halle Berry) berarekin jarriko dira harremanetan. Baina hasierako planak aldatuz joango dira...

### ARRASATE

> **Psikogeriatria ikastaroa**, ICTEk antolatuta. Urriaren 1etik 5era, 15:15etik 18:15era. Portaeraren nahasteak adinduengan landuko dira. Honako hauei zuzenduta dago ikastaroa: zaintzaile eta senideei, osasun aloreko langileei, etxez etxeko laguntzaileei, erresedentziako langileei eta ikasleei. Argibideak 943 77 16 99 telefonoan.

> **Energia berriztagarrien ikastaroa** irailaren 29an eta 30ean eta urriaren 12an eta 13an (32 ordu). Matrikulak 3.000 pezeta balio du. Izena ematea 943 79 97 84 telefonoan.

> **Rock perkusio ikastaroa** urriaren 1etik 29ra, astelehenetan 18:00etatik 20:30era Gazteluondo aretoan. 943 79 80 25 (Iñaki).

> **Bertso eskola**, AED elkarteak antolatuta. Adinaren arabera bi talde egingo dira: 12-15 urte bitarteko gazteena eta 16 urtetik gorakoena. Urte osorako matrikulak 3.500 pezeta balio du. Izena ematea urriaren 5era arte zabalik. 943 71 21 17.

> **Antzerki tailerra** urriaren 20tik urtarrilaren 26ra, zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. 17 urtetik gorakoei zuzenduta. Izena ematea urriaren 11 baino lehen AED elkartean edo 943 77 12 28 zenbakian.

> **Gorputz lan bioenergetiko taldea**, Arrasate Yoga elkarteak antolatuta. Eguaztenero 18:30ean. Argibideak: 616 96 57 95.

### BERGARA

> **Fandango eta arin-arin ikastaroa** Moises Azpiazu dantza taldearen eskutik. Gazteendako eta helduendako ikastaroa da, eta eskolak urrian hasiko dira. Izena ematea eta argibideak 943 76 15 40 telefono zenbakian.

> **Prozesu industrial elektrikoen automatismo ikastaroa** urriaren 15etik aurrera. 18 urtetik gorako langabeendako. Argibideak 943 77 91 65 telefonoan.

### ESKORIATZA

> **Amuska taldeak,** Udalaren laguntzaz, antolatutako ikastaroak: bolillo, larrua eta pintura oihal gainean, eskulanak eta pintura. 30 orduko ikastaroak. Argibideak 943 71 46 88 zenbakian.

### OÑATI

> **Erretzeari uzteko ikastaroa** urriaren 15etik azaroaren 19ra. Minbiziaren aurkako elkarteak eta Oñatiko Udaleko droga-mendekotasunen prebentziorako zerbitzuak antolatuta. Izena ematea (2.000 pezeta) urriaren 3ra arte zabalik. 943 78 04 11.

### DEBAGOIENA

> **Begirale ikastaroa** Txatxilipurdi, Axtroki, Loramendi eta Laixan elkarteek antolatuta. 18 urtetik gorakoendako. 943 79 54 46.

## Deiak

### ESKORIATZA

> **Umeentzako jolasak** zapatuan, hilak 28, herriko plazan, 11:30etik aurrera. 3 urtetik gorako haurrentzat.

### DEBAGOIENA

> **Nafarroa oinez.** Urriaren 21ean Lodosan ospatuko den Nafarroa Oinez jaiaren antolaketa lanetan jarduteko jendea behar dute. Hori dela eta, Debagoieneko euskara elkarteek dei egiten diete laguntzeko prest dauden guztiei. Interesa dutenak edozein herritako euskara elkarteekin jar daitezke harremanetan. Autobusa bezpera iluntzean irtengo da Debagoienetik, eta jaia amaitu eta gero bueltatu. 943 71 21 17.

## Museoak

### ESKORIATZA

> **Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara zabalik. Argibideak 943 71 54 53 telefono zenbakian.

## HILDAKOAK

**Vicente Ugarte Eguren**
Arrasaten, irailaren 4an,
74 urte zituela.

**Jose Cuesta Jimenez**
Antzuolan, irailaren 5ean,
81 urte zituela.

**Angel Iñurrategi Garitano**
Bergaran, irailaren 7an,
77 urte zituela.

**Juan Bautista Uribarren Altuna**
Arrasaten, irailaren 8an,
88 urte zituela.

**Evaristo Celemin Vicente**
Arrasaten, irailaren 9an,
68 urte zituela.

**Begoña Aranburu Etxebarria**
Arrasaten, irailaren 9an,
87 urte zituela.

**Urbana Gurutzeta Arantzabal**
Eskoriatzan, irailaren 10ean,
94 urte zituela.

**Maria Concepcion Sopelana Orroniz**
Bergaran, irailaren 11n,
36 urte zituela.

**Felisa Larrañaga Etxeberria**
Bergaran, irailaren 11n,
76 urte zituela.

**Pedro Marin Perez**
Bergaran, irailaren 12an,
64 urte zituela.

**Eulalia Elorza Azkarate**
Aramaion, irailaren 18an,
78 urte zituela.

**Rufina Guardado Chaparro**
Oñatin, irailaren 20an,
88 urte zituela.

**Micaela Gavilan Pulido**
Oñatin, irailaren 20an,
83 urte zituela.

**Felix Irazola Vildosola**
Arrasaten, irailaren 20an,
76 urte zituela.

**Dorotea Hernandez Jimenez**
Arrasaten, irailaren 21ean,
76 urte zituela.

**Marcelina Perez Leon**
Arrasaten, irailaren 22an,
86 urte zituela.

**Carmen Astokiza Macarron**
Arrasaten, irailaren 23an,
72 urte zituela.

**Valentin Gorosabel Larrañaga**
Bergaran, irailaren 24an,
84 urte zituela.

**Lorenzo Elkoroiribe Arriaran**
Oñatin, irailaren 25ean,
58 urte zituela.

**Teresa Larrañaga Telleria**
Bergaran, irailaren 25ean,
91 urte zituela.

## URTEURRENA

# Jose Luis Iñarra

*Arrasateko parroko ohiaren heriotzaren 25. urteurrena*



Bizirik daude gure artean
zure genio ta indarra,
mondrautar denoi on egitea
izan zenuen iparra,
Maritxu jaia martxan jartzeko
zure laguntza ederra,
gure agurra eta omena
zuri Jose Luis Iñarra!

Maritxu Kajoi Komisiñue

*Arrasaten, 2001eko irailaren 28an*

## URTEURRENA

# Jesus Martinez Abarrategi

Josefa Beitiaren alarguna



Lehen urteurreneko meza
eguenean, urriak 4,
19:00etan,
**Arrasate**ko San Juan
Bataiatzailearen parrokian.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ESKER ONA

# Felisa Larrañaga Etxeberria



**Bergaran** hil zen
2001eko irailaren 11n,
76 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Maitane Garitaonandia Capellán** eta **Marian** ama, eskoriatzarrak. Maitane irailaren 24an jaio zen, eta 3,450 kilo pisatu zuen. **Angel** da aita, hura ere Eskoriatzakoa.



**Mara Pérez Dos Santos** eta **Geli** ama, aretxabaletarrak biak. Mara irailaren 19an jaio zen, eta 3,390 kilo pisatu zuen. **Moxe** da aita, aretxabaletarra hura ere.



**Elder Zubizarreta Bolinaga** eta **Juan Ramon** aita, mondragoetarrak biak. Irailaren 20an jaio zen Elder, eta 2,700 kilo pisatu zuen. **Pili** da ama, mondragoetarra hura ere.



**Beñat Guridi Larrañaga** eta **Juan Luis** aita, oñatiarrak biak. Beñat irailaren 20an jaio zen, eta 3,400 kilo pisatu zuen. **Miren Josune** da ama, Elorregikoa.



**Andoni Rodríguez García** eta **Fernando** aita, bergararrak. Irailaren 23an jaio zen Andoni, eta 3,460 kilo pisatu zuen. **Vicen** da ama, bergararra hura ere.

**Roberto Arantzabal** eta **Nati Ugarte** bergararrek 40 urte bete dituzte ezkonduta. 1961eko irailaren 9an ezkondu ziren Santa Marinan. Mendizale amorratuak izanik, Anayeten ospatu dute 40. urteurrena. Zorionak eta urte askotarako biloben partetik!




# Aisialdiko begirale ikastaroa

(TITULU OFIZIALA)

## (Debagoienean)

18 urte beteta badituzu, apunta zaitez!

**Izenematea urriaren 11**

**Apuntatzeko edo argibide gehiago eskatzeko...**

- ARETXABALETAN, Loramendin ........................ 943 77 09 70
- ARRASATEN, Txatxilipurdin ........................ 943 79 54 46
- ESKORIATZAN, Tortolis ludotekan ........................ 943 71 49 21
- OÑATIN, Laixanen ........................ 943 71 63 11

ANTOLATZAILEAK:

loramendi euskera elkartea
TXATXILIPURDI Haur eta gazte ekintzak AED
AXTROKI ESKOITZAN EUSKARAZ
Laixan

# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7









# Umore giroan

David Peñalver

**IPOTXA BILBON ZIHAR**
Juan da ipotx bat Bilbora lehenengo aldiz, Guggenheim ikusteko asmuakin. Badoia kalian zihar prisaka, eta galdetu dotsa bilbotar bati:
- Aizak, gizon, zenbat geratzen jatak metrora heltzeko?
Eta bilbotarrak:
- Ba, hamar bat zentimetro!

**AZENARIXUAK**
Juntau die bi lagun baserrittar Ordiziako ferixan. Postuak jartzen dabitzela, hasi die konbestaziñuan eta esan dotsa batak bestiari:
- Oin dala hillabete, azenarixuak landatu nittuan eta ezetz jakin ze urten zeben?
Eta bestiak:
- Ba, azenarixuak, hara bestia!
- Astuan potruak, konejuak urten zeben ikuillutik eta danak jan jittuen!

**POSPOLUAK**
Juan da Patxi dendara, pospolo billa, eta dendarixak esan dotsa:
- Hi, Patxi, hemen daukak pospoluak, oso onak, primerakuak.
Eta Patxik:
- Hik zelan dakik, ba, hain onak diela?
Eta dendarixak:
- Ba hi, banan-banan probau jittuat eta danek pizten juen!

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Noiz eraiki zuten Elorregiko (San Prudentzioko) bidegurutzeko zubia?

Elorregiko bidegurutzean zubi berria eraikitzen dihardute orain, biribilgune edo errotonda bat egiteko. Baina, asmatuko ote zenuke lehendik dagoenak zenbat urte dituen gutxi gorabehera?

- 200 urte pasatxo.
- 100 urte pasatxo.
- 1936ko Gerra zela eta eraiki zuten.

**Erantzun zuzena** 200 urte pasatxo. Aurretik, Oñatitik zetorren errepidea eliza ondoko zubitik igarotzen zen, eta 1777tik 1794ra bitartean egin zuten bidea oraingo lekutik.

## Soluzioak





# Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Azkenean, gura zenuen etxea eros dezakezu. Ahalegina gogorra izan da eta izango da, baina mereziko du.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Aspertuta zabiltza, egunerokotasunean murgilduta, eta horren ondorioz nahiko lur jota zaude. Ahalegindu behar gutxiago egiten eta egunero lagunekin pixka bat irteten. Horrela hobeto ibiliko zara beharrean eta emaitza hobeak izango dituzu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Arazoak bikotekidearekin, beti jendearekin egoteko eta jende berria ezagutzeko daukazun gogoak ez zaituztelako bakarrik egoten uzten. Egoera hau betirako ez dela azaltzen ez badiozu utzi egingo zaitu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Arazoak ingurukoekin, zure ziurtasun falta dela eta dena txarrean hartzen duzulako. Ahalegindu zeure buruarengan konfiantza handiagoa izaten eta ez eman garrantzirik besteek diotenari.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lagunek ez zaituzte asetzen, behar dituzunean ez daudelako laguntzeko prest, beraz aldaketak egingo dituzu arlo horretan. Etxeko apainketan ere aldaketa txikiak egingo dituzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Laneko etorkizunaren gainean hausnartu beharko duzu, aldaketak proposatuko dizkizutelako herri aldaketa edo sail aldaketa. Pentsatu ea aldaketok zuretzako onuragarriak izango ote diren.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Behar handia aste honetan. Erabakiak zeure kabuz hartu beharko dituzu, eta horrek hasieran urduritasuna eragingo dizun arren, luzera poztasuna emango dizu, gauzak zeuk bakarrik egiteko gai zarela konturatzean.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Seme-alabek ez zaituzte kontuan hartuko lehen bezala, eta ondorioz galduta ibiliko zara eurekin zelan jokatu ez dakizula. Topatu lanpetuta edukiko zaituen eta erabat aseko zaituen eginbeharren bat.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Harreman zoragarrria hasteko pertsona bat ezagutu dezakezu. Ez utzi oroitzapen txarrek zoriontasun hori hauts dezaten.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ohi baino gogo handiagoa izango duzu, aspalditik pentsatuta zenituen egitasmoei heltzeko. Izan zuhurra, zure oldarkortasunaren ondorioz istripuren bat izan dezakezu eta.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Besteei entzuteko ohi baino joera handiagoa izango duzu, hori dela eta ingurukoek laguntza eskatuko dizute. Lagun iezaiezu, badaukazu gaitasuna eta.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Nahasmena nagusi. Daukazunak ez zaitu asetzen, baina ez dakizu zer nahi duzun. Guztiaren inguruan hausnartzeko une egokia, baina batez ere beharraren inguruan, horrek asetzen baitzaitu gutxien.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko irailaren 28a

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa goitb@goiena.com

## GORKA ETXABE

### GOITBko erredaktoreburua

**Astelehenetik aurrera, albistegi bi izango dira GOITBn: iluntzekoa eta eguerdikoa, eta biak izango dute aurkezlea: eguerdikoa Gorka Etxabe GOITBko erredakzioburuak aurkeztuko du.**

**Datorren astean estreinatuko da GOITBren egitarau berria, eta albistegiei dagokienez, izango da berri aipagarririk...**

Bai, nabarmentzekoa da GOITBko lantaldeak esfortzu berezia egingo duela, Debagoienean gertatutakoak egunero-egunero ikusleei helarazteko. Horretarako, eta horixe da nobedade nagusia, eguerdiko albistegia indartuko dugu. Alde batetik, luzeagoa izango da; orain arte bost minutukoa izan da eta aurrerantzean, ordu laurden iraungo du. Ordu bietan eskainiko da zuzenean, eta 15:15ean errepikatu egingo da. Bestalde, aurkezlea izango du, orain arte ez bezala. Neu izango naiz eguerdiko albistegiko aurkezlea.

**Eta iluntzeko albistegia Malder Osak aurkezten jarraituko du?**

Bai, horretan ez da aldaketarik. 20:00etan zuzenean, eta gero, 21:30ean, errepikapena.

**Ibarrean gertatutakoaz ondo informatuta egoteko aukera zabalagoa izango dugu, hortaz?**

Hala da. Egin ditugun azterketek erakutsi digute badagoela iluntzean telebista ikusteko aukerarik ez duenik. Eguerdiko albistegiaren bitartez, horiei ere eskaintzen diegu ibarreko berriak jasotzeko aukera.

**"Eguerdiko albistegiarekin informazioan irabaziko dugu"**



## GOITB 2001-2002

Astelehena, 20:30ean

### Saio berrien aurkezpena

Maria Agirre Arrasate Irratiko esatariak aurkeztuko du datorren ikasturterako GOITBk prestatu duen programazioa. Saio horretan ikusi ahal izango dituzue Goiena Telebistako aurpegi eta saio berriak. Aurtengoan ere apustu sendoa egin dugu, emisio orduak luzatu egin ditugu-eta. Hitzordua astelehenean duzue, arratsaldeko 14:30ean eta gaueko 20:30ean.



## 'Xeleberri' jaietan

Martitzena, 20:30ean

### San Migel jaietara

*Xeleberri* programak denboraldia hasteko aukera paregabea aprobetxatu du, eta Aretxabaletan oraingo asteburuan ospatuko diren San Migel jaietara bidali ditu erreportari xelebreenak. Hain zuzen ere, han izango dira Kepa Errasti, Mikel Aranburu, Lorea Agiriano eta Iratxe Eguen. Kalean gora eta behera ibiliko dira, betiere galdera xelebreren baten erantzunaren bila. Azoka, herri kirolak, ume jolasak eta urtez urte arrakastaz dantzatzen duten Larrin Dantzan izango ditugu GOITBko kamerak. Baina ez da Goiena Telebistan oraingo astean izango dugun jai giroko programa bakarra; izan ere, gaueko hamarretan, Moises Aspiazu Dantza Suelto Txapelketa emango dugu Bergaratik.

## Alkatearekin berbetan

Eguaztena, 20:30ean

### Gatzagarrei deia

*Alkatearekin berbetan* saioak ere oraingo eguaztenean hasiko du urteroko ibilbidea. Hilean behin, debagoieneko alkateak gonbidatuko ditu Saioa Ojanguren aurkezle eta kazetariak. Oraingo astean, Joserra Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatea etorriko da gurera. Aintzane Gardoki eta Edorta Arana kazetariak ere mahaiaren bueltan izango ditugu, biek ere gertu gertutik ezagutzen dute-eta Gatzaga. Eztabaidarako gaur-gaurko gaiak mahai gaineratuko dituzte kazetariek, eta ikusleek ere aukera izango dute saioan parte hartzeko. Horretarako, 943 71 23 95 telefono zenbakira dei dezakezue eta alkateari zuen kezkak azaldu.

goitb
Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Urria 1-7

| ASTELEHENA 1 | MARTITZENA 2 | EGUAZTENA 3 | EGUENA 4 | EGUBAKOITZA 5 | ZAPATUA 6 | DOMEKA 7 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 14:00 **Berriak**<br>14:15 **Gatza eta berakatza**<br>14:30 **2001-2002 Programazioaren aurkezpena:** Goiena Telebistak datorren ikasturterako prestatu dituen nobedadeak ikusteko aukera. Maria Agirre irrati esatariak zuzenduko du saioa eta datorren ikasturtean zuen pantailan izango dituzuen aurpegi berriak aurkeztuko ditu.<br>15:15 **Berriak** | 14:00 **Berriak**<br>14:15 **Gatza eta berakatza**<br>14:30 **2001-2002 Programazioaren aurkezpena**<br>15:15 **Berriak** | 14:00 **Berriak**<br>14:15 **Gatza eta berakatza**<br>14:30 **Xeleberri jaietan:** Aretxabaletako San Migel jaiak aitzakia hartu ditugu erreportariak jai giroan murgiltzeko. Hortaz, asteburuko giroa modu umoretsuan ikusteko aukera xelebrea.<br>15:15 **Berriak**<br>15:30 **Moises Aspiazu Dantza Suelto Txapelketa:** San Martin jaietan Bergaran jokatutako Dantza Suelto Txapelketa. | 14:00 **Berriak**<br>14:15 **Gatza eta berakatza**<br>14:30 **Alkatearekin berbetan**<br>15:15 **Berriak** | 14:00 **Berriak**<br>14:15 **Gatza eta berakatza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:15 **Berriak**<br>15:30 **Soinuz blai** | 13:30 **Asteburuko tartea**<br>**2001-2002 Programazioaren aurkezpena.**<br>**Xeleberri berezia:** Aretxabaletako San Migel jaiak.<br>**Moises Aspiazu Dantza Suelto Txapelketa.**<br>**Alkatearekin berbetan:** Joserra Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatearekin solasean.<br>**Sarrera doan:** ondorengo egunetarako kontuan izan beharreko hitzorduak.<br>**Soinuz blai:** punta-puntako abeslarien bideoklipak ikusteko aukera.<br>**Astebete:** asteko gai nagusien errepasoa. | 13:30 **Asteburuko tartea**<br>**2001-2002 Programazioaren aurkezpena**<br>**Xeleberri berezia:** Aretxabaletako San Migel jaiak.<br>**Moises Aspiazu Dantza Suelto Txapelketa.**<br>**Alkatearekin berbetan:** Joserra Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatearekin solasean.<br>**Sarrera doan:** ondorengo egunetarako kontuan izan beharreko hitzorduak.<br>**Soinuz blai:** punta-puntako abeslarien bideoklipak ikusteko aukera.<br>**Astebete:** asteko gai nagusjen errepasoa. |
| 20:00 **Berriak**<br>20:30 **2001-2002 Programazioaren aurkezpena**<br>21:15 **Gatza eta berakatza**<br>21:30 **Berriak** | 20:00 **Berriak**<br>20:30 **Xeleberri bereziak:** Aretxabaletako San Migel jaiak.<br>21:15 **Gatza eta berakatza**<br>21:30 **Berriak**<br>22:00 **Moises Aspiazu Dantza Suelto Txapelketa** | 20:00 **Berriak**<br>20:30 **Alkatearekin berbetan:** Joserra Agirreurreta Leintz Gatzagako alkatea etorriko da geurera. Saioa Ojanguren kazetariaren gidaritzapean.<br>21:15 **Gatza eta berakatza**<br>21:30 **Berriak** | 20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan:** ondorengo egunetarako ibarrean kontuan hartu beharreko hitzorduak. Guk proposamen zabala egingo dizuegu eta zuek zeuok egizue zuen agenda.<br>21:15 **Gatza eta berakatza**<br>21:30 **Berriak**<br>22:00 **Soinuz blai:** gaur-gaurko bideo-klipak ikusteko aukera paregabea, baita lagun berri bat egiteko aukera ere. Adi! | 20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete:** asteko gai nagusiak laburbiltzen dituen saioa. Aurtengoan ere, Marijo Deogracias kazetariak zuzendua.<br>21:15 **Gatza eta berakatza**<br>21:30 **Berriak**<br>22:00 **Soinuz Blai** | | |

# BAKEROAK EGITEN HASIZ GEROZTIK, DEBAGOIENEAN EZER EZ DA BERDIN



XIX. mende erdialdera, Denim oihala Kaliforniako meategietako kanpadendak egiteko erabiltzen zuten. 1870eko hamarkadan, galtzak diseinatu zituzten oihal harekin bakeroak.

1950eko hamarkadan, rock-and-rollaren eta zinema estatubatuarraren eraginez, mundu osora zabaldu ziren bakeroak.

Debagoienean, 1846an, Fabrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara sortu zen. 1974an, Tavesa izenarekin ordurako, bakero oihala egiten hasi zen.

Gaur egun, eskualdeko bakero oihal gehiena bi lantegik ekoizten dute Algodonerak eta Narvaizak. Biak batuta, 300 lagun ari dira lanean eta urtean 4.500 milioi inguruko salmentak dituzte.

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel. 943 76 92 71 • Faxa 943 76 29 77 • Posta-e goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel. 943 71 25 11 • Faxa 943 71 23 89 • Posta-e arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel. 943 79 86 21 • Faxa 943 77 18 54 • Posta-e aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel. 943 79 21 00 • Faxa 943 79 22 93 • Posta-e publi@goiena.com.
**Lege Gordailua** NA-3329/2000 • **ISSN** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko irailaren 28a


*Atzeskua* MAIDER OSA

# Jesus Mari Plazaola/Artzaina

**Noiztik artzain txakurren txapelketatan?**
Orain dela 29 urte hasi nintzen. Umetan, Oñatira joaten ginen artzain txakurren txapelketak ikustera. Pedro Arrupe-eta aritzen ziren orduan. Etxean ardi txakurra genuen, eta gustatu egin zitzaigunez, aurrena Iñaxio anaia hasi zen, eta gero, ostera, ni.

**Aurten, ordea, ez zaitugu Oñatin ikusi.**
Ez. Iaz bajan izan nintzen bederatzi hilabetean, eta ez nintzen txakurrarekin bat ere ibili. Ondo prestatu ezean, Oñatiraino iristea zaila da. Gipuzkoako Txapelketan, ordea, bigarren gelditu nintzen, eta Euskal Herrikoan seigarren.

**Artzain txakur txapelketa batean nor da txapelduna, artzaina ala txakurra?**
Nik uste dut txapeldunak biak direla.

**Baina txapela artzainak janzten du, ezta?**
Bai. Biek beharko lukete, ordea.

**Zer behar du txakur batek esanekoa izateko?**
Lehenengo, esaten dena entzun, esaten den hori konplitzen nahiko lan izaten da-eta. Berezkoa behar du txakurrak esanekoa izateko; edozein txakur ezin da izan esanekoa. Txakurra sen handiarekin joaten bada ardiengana, erraz erakusten zaio. Horrez gain, esanekoa bada, ikasiko du arditan, baina lan handia egin ondoren.

**Euskal artzain txakurra ala Border Collie arrazakoa?**
Nik bizitza osoan euskal artzain txakurra erabili izan dut, eta sekula ez dut pentsatu aldatzerik.

**Etxean zu bakarrik aritzen zara ardiekin?**
Ez. Erretiratu batek laguntzen dit, Karlos Urrutiak. Batez ere, hura aritzen da ardiekin. Lehen egunero joaten nintzen ardiengana, baina Bergarako Udaletxean lanean hasi nintzenetik askoz ere gutxiagotan.

**Zein izan da sekula izan duzun txakurrik onena?**
Oñatin aurten irabazle izan denaren ama, "Nere". "Nere"ren aita ere, "Mendi", oso ona zen; hura ere Oñatiko Txapelketan bigarren gelditu zen.

**Badakit artzain bati zenbat ardi dituen galdetzea eta langile bati zenbateko soldata duen galdetzea antzerakoa dela, baina... zenbat ardi dituzu?**
135. Gaur egun, jornalaren berri norberak baino lehen aldamenekoek izaten dute, nominak direla-eta. Ardiekin berdin gertatzen da. Guk baino gehiago dakite Diputaziokoek, nekazaritza-elkartekoek... gezurretan ibiltzea alferrik da.

**Artzain txakurren txapelketatan irabazlea onena izaten da beti?**
Ez beti. Zorteak ere badu zeresana, baita ardien portaerak ere.

**Ondo errekonozitua dago artzainen lana?**
Inondik inora ere. Pena da, baina artzaintza galdu egingo da; orain, itxitura egokiak egiten dira, eta sobran dago lehen txakurrek egiten zuten lana. Lehiaketetara aurkeztutakook segitzen dugu txakurrekin lanean, baina jende berririk ez da animatzen.

**Hortaz, etorkizun beltza ikusten diozu artzaintzari?**
Bai, oso beltza. Lotura handia duen lanbidea da, eta normala da gazterik ez animatzea.



**"Nik bizitza osoan euskal artzain txakurra erabili izan dut, eta sekula ez dut pentsatu aldatzerik"**

**"Etorkizun beltza ikusten diot artzaintzari. Lotura handia duen lanbidea da"**

► *Arrasatearra / 44 urte / Artzaina*

## AIPAGARRI



**ANTONIO ZABALA**
**Bergara**

Kazetari bergararra Donostiako Zinemaldian da egunotan. Zinemazale amorratua da, eta Zinemaldiak ematen duen sarietako batean epaimahaikide da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Odol Emaileek ematen duten sarian. Beste urte batzuetan ere ibilia da zeregin horretan.



**JOSE LUIS APERRIBAI**
**Bergara**

Elgetako eta Angiozarko parrokoa izan da azken urteetan, baina tokiz aldatzeko unea heldu zaio. Hernanira joango da aurki. Joan den astean, agurra eskaini zioten hainbat eta hainbat elgetarrek eta argiozartarrek. Mezaren ostean, bazkaria izan zuten. Jose Luis bergararra da. Elgetara etorri aurretik Lezon izan zen.


BERRIAK / SOINUZ / BLAI / XELEBERRI
IPARRORRATZA
GATZA ETA BERAKATZA
EKILAN / ALKATEAREKIN / BERBETAN
GOIENASPORT / GOIBEGIRADA / ASTEBETE
SARRERA / DOHAN / SAREAN
ALBISTEEN / AURRERAPENA
urriaren 5ean aro berri bat hasten da
Goitb
Goiena Telebista